

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 4a / 636. zenbakia

UDA KO KANPAINA

AUKEAK gertu du Udako Kanpainako bigarren hamabostaldia



ORAIN ETA HEMEN: **ETXALUZE BASERRIKO ALTXORRA/7** • **KIROLA: JONATHAN PEREZ, TXAPELDUN/11**

AZALA: ALEX AZKARATE / JATORRIZKO ARGAZKIA: DIGITAL VISION/FOLIO

PROFESIONAL LIBERALEN GIDA/20



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ASESORIA ARRASATE

Erdiko kalea 32, 1. Arrasate
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00
asesoriaarrasate@telefonica.net

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

GERTU AHOLKULARIAK

Otalora 38 B. Arrasate
Tel. 943 79 94 21 Faxa: 943 79 86 44
gertu@conet.es

ETXE

ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER


Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

KALEINKESTA/ Oporrak, zeure kontu ala agentzia bittartez?




IBAN SILBAR
Langillie

Jeneralien neure kontu egittie gustetan jat, baiñe aurtent agentzia bittartez juengo naz oporretan. Ze opor klase gure dan arabera elegidu biher da norberan kontu egittie edo agentzia bidez.



MARIA VISITACION BRAGADO
Langillie

Ointxe nabil zertxobait begiketan, eta azkenien geure kontu juengo gare. Leku batera juen, eta leku hori gustau ezkeru, bertan geratu, iñungo loturarik euki barik.




ASIER SANTAMARIA
Langillie

Jeneralien neure kontu antolaketan dittut oporrak, baiñe ez dauket arrazoi berezirik. Hotelera banoie agentzia bittartez egitten dot, baiñe bestela neure kontu jueten naz.



IÑAKI ARSUAGA
Langillie

Batzuetan agentzia bittartez egitten dot eta beste batzuetan neure kontu, Ze asmo dauketen arabera. Hotelera agentzia bittartez jueten naz; bestela, neure kontu egitten dot.



JOSE LUIS AGUADO
Langillie

Neure kontu juetie gustetan jat, lotura txikixague eukitten dot-eta. Jeneralien Extremadurara jueten naz, han etxie dauket-eta. Baiñe hara ez noienien neure kontu ibiltten naz.



AITZIBER AGIRRE
Iklasie

Neure kontu jueten naz oporretara, gustorago ibiltten naz, gehixen gustetan jaten lekuen geraketan naz-eta. Jeneralien hondartzara jueten naz, eta ez dot arazorik eukitten.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK KULUNKEN ERABILTZAILEEI ARRETA Zaldibar pilotalekuaren gunea, batez ere, umeendako eta gurasoendako aproposa da. Guneak duen erabilera kontuan hartuta, Udalak kartel bat jarri du. Hain zuzen, kulunkak zein adinetako ume eta gaztetxoendako diren zehazten du kartelak. Horrez gain, larrialdietarako edo kulunkaren bat apurtuz gero, jakin beharreko telefono zenbakiak agertzen dira.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLAK /11

KULTURA/14

Julen Arexolaleiba

Euskararen gaineko elkarriketa egin diogu Julen Arexolaleiba MUko irakasle arrasatearrari.

Maria Jose Gil, Puerto Ricon

Arrasateko atleta beterranoa Puerto Ricon dago, eta Munduko Atletismo Txapelketan parte hartuko du.

Trikitixa Eskolaren GDa

Arrasateko Trikitixa Eskolak diskoa kaleratu du. Hamar kantu grabatu dituzte disko horretan.

ASTEKODATUA

104

NESKA-MUTIKO DAUDE BURGOSEN, AKP-REKIN

Arrasateko 104 neska-mutiko daude Burgosko Espinosa de los Monteros herrian udalekuetan. Hamar egun egingo dituzte han, eta hainbat kirol ekintzaz gozatzeko aukera izango dute.

IRAKURLEAREN TXOKOA

“Jadanik badira urte pasatxo Araba etorbidean, Cim-Ahizke eta BM aurrean, espaloio ganean margotu ziren aparkalekuak daudela. Nik hasieran, halako astakeria ikustea, behin-behinekotzat jo nuen sasi aparkalekuen existentzia. Baina denbora aurrera doa, astakeriak hor dirau, espaloio guztiz narrasten eta apurtzen ari da eta inork ez du ezer egiten (antza hauteskundeak pasatuz gero, inori ez dio axola). Badakit aparkaleku faltan dela herria eta espaloio zabalegia dela duen erabilerarako, baina hori ez da egindako lardaskeria aitzakia moduan hartzeko bidea. Edo oinezkoak ez al dugu inolako eskubiderik herri honetan? Zergatik ez da espaloioaren ganean aparkalekuak margotzen arduratu zena ganorazko aparkalekuak sortuz espaloio birmoldatzen hasi? Oinezkoak ez al dugu espaloitik lasai joateko eskubiderik? Bada garaia herritarren eskubideak parekatzeko, mesedez.

MIKEL ARRUPE

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



AHTren aurka aurtent Jaizkibelen

Uztailaren 24tik abuztuaren 3ra bitartean, Jaizkibelen egingo da AHTren Aurkako Asanbladak urtetik urtera eratzen duen kanpaldia, **SUPERPORTURIK EZ! PROIEKTU TXIKITZAILEAK GELDITU!** lemapean. AHTren aurkako 8. kanpaldi horren bidez, Abiadura Handiko Trenaren aurkako borroka hedatzen segitu nahi da eta Pasaiaiko superportuaren ondorioz Jaizkibelgo itsasertzak sufrituko lukeen eraso ikaragarria salatuz, egitasmo horren oposizioan jarduten dutenekin. Beraz, jende guztiari mobilizazio horretan parte hartzeri dei egiten da, proiektu erasokor eta ezin justifikatuzko horren kontrako erantzunari bultzada bat emateko eta hamaika aurpegi dituen desarrollismoaren aurrean komunikazio kritikoa, borroka kolektiboa eta norbanakoaren eraldaketarako grina suspertu nahi dituen topagune bat sortzeko.

Azpiegitura-lan erraldoiek interes kapitalistei baino ez diete mesede egiten eta AHTren aurkako oposizioak Superportuaren kontra altxatzen ari diren ahotsekin bat egiten du, makroproiektu hori inoiz gauzatu balitz Jaizkibelgo itsasertzak bere balio naturalak interes ekonomiko eta desarrollista hutsen probetxurako galduko lituzkeela salatuz. Adibidez, egitasmoan 6 milioi metro kubiko hormigo erabiliko direla aurreikusten da, eta “kopuru horien eskuragarritasuna, baita 50 kilometroko inguruan dauden harrobi guztiak ustiatuta ere, zalantzarria dela” ohartarazten da.

Hortaz, Jaizkibelen egingo den kanpaldian parte hartzeko dei egiten da, mobilizazioari eusteko eta era berean elkarren artean ezagutu eta gizarte harremanak eraldatzeko egiten diren esperentziak trukatzeko aukera izateko. Zuen parte hartzea espero dut beraz, eta bertan ikusiko garela...

“Azpiegitura-lan erraldoiek interes kapitalistei baino ez diete mesede egiten eta AHTren aurkako oposizioak aurka egingo die”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Kooperatiba eta garapena

Kooperatiba Ekintzaitza eta Lurralde Garapena izeneko jardunaldietan buru-belarri dabil Mondragon Unibertsitatea. Gaur egun, Arrasate eta bere ingurua lurralde garatua da, eta, Europako txosten ekonomikoaren arabera, Estatuko errenta altuena duena.

Jardunaldi horietan, hain zuzen, aztertuko dituzte egoera horretara iristeko zeintzuk izan diren hemen izan diren baldintzak. Horrela, Arrasateko esperientzia erakusle moduan hartu gura da, beste herrialde batzuetako garapenerako baliagarria izan dadin.

Tourreko porra gertu

Tourrak 100 urte beteko ditu aurten, eta azken urteotan ohitura bilakatu da Tourrean porrak egitea. Arrasaten bada porra garrantzitsu bat, Monte tabernak egiten duena. Dagoeneko kaleratu dute porran parte hartzeko araudia, eta domekan amaituko da izena emateko aukera.

Lehenengo etapa zapatuan jokatu da, eta egun horrek ziklistak zelan dabiltzan ikusteko balioko du. Zapatuko lasterketa, baina, ez da puntuagarria izango. Iaz 570 lagunek eman zuten izena, eta lehenengo saria 6.840 eurokoa izan zen.

Obenerrekako zubian ezustea

Egubakoitzean Obenerrekako zubian ezustea izan zen. Santa Marina auzotik Obenerrekara jaisten zebilen kamioi batek zubia jo zuen garabiarekin. Obretako langileek aldagela moduan erabiltzen duten kabina bat kargatu ondoren, kamioilariari ahaztu egin zitzaion garabia jaistea, eta zubi azpitik pasatzerakoan, garabiak zubia jo zuen.

Ezbeharrak 11:00etan izan zen, eta kolpearen ondorioz zubiaren azpiko aldeko xaflak zintzilik geratu ziren, eta suhiltzaileak ibili ziren xaflak zerrarekin moztu eta erretiratzen.



Diseinu Industrialeko erakusketa

Goi Eskola Politeknikoan erakusketa jarri dute, Diseinu Industrialeko bigarren eta hirugarren mailako ikasleen proiektuak batzen dituena. Irakasleek emandako gai orokor bat garatzean datza proiektua, ikasketa planak errespetatuta. Ikusteko moduko proiektuak aurkeztu dituzte.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Komunikabideen biziraupena

Orain dela gutxi, euskalgintzari eta herri ekimenari esker, *Berria* egunkaria jaio da. Madrilgo Audientzia Nazionalak itxi egin zuen *Euskaldunon Egunkaria* ordezkatu du komunikabide berri horrek. Oso pozgarria eta harro egoteko modukoa da herri honek arazoei aurre egiteko daukan gaitasuna eta ausardia.

Baina, aspaldi honetan, behin kolpea jaso eta altxatu orduko, beste bat dator. *Egin* kudeatzen zuen Orain SA enpresak Gizarte Segurantzari 5,1 milioi euro zor ei dizkio, baina enpresa hori duela bost urte pasa geldirik eta Garzonen administraziopean dago. Duela gutxi, Garzon epaileak aditzera eman zuen *Gara Egin*-en jarraipena dela eta, horregatik,

zor hori *Gara* kudeatzen duen Baigorri enpresak ordaindu behar duela. Hainbat abokatuk esan dute argudio horrek, enpresen jarraipenaren gainekoak, ez duela zentzurik.

Edozelan ere, zor hori ordaintzeko epea bihar, zapatua, bukatuko da eta, noski, *Gara* kudeatzen duen enpresak ez du hori ordaintzeko asmorik. Beraz, Euskal Herrian bizi ditugunak ezagututa, auskalo beste egunkari bat itxiko diguten.

ASTEKO IRUDIA



IKER BARANDIARAN

ARRASATE ZINEMA ARETO BARIK GELDITU DA

Ez da oraingo aste irudia, baina ez dago soberan gai horren gainean gogoeta egitea. Amaia antzokian eguenero izaten den zinekluba da herrian zinema ikusteko aukeragun aukera bakarra. Alai zinema aretoa itxi egin berri dute, jende gutxi joaten zen-eta. Mondragoetarrok gurago dugu zazpigarren arteaz goz-

tzera hiriburuetara joan, Gasteizera gehienbat. Egia da Alai zinema zaharkitua zegoela, gaur egungo areto berriek ikuslea filmeko protagonista dela sentiarazten dute-eta. Baina Debagoiena Euskadiko laugarren hiriburua izan behar bada -hori diote batzuek-, nolatan ez dugu ganorazko zinemarik? /X.U.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABAleta

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ZINEMA/ Arrasateko azkeneko zinema komertziala, Alai, itxi egin dute. Iraganean beste zinema areto asko egon ziren.

Iraganean zinema areto ugari egon ziren Arrasaten, eta oso harrera ona zuten

IKER BARANDIARAN

Ekainaren erdialdean Alai zinematik ateak itxi zuten. Eman zuten azkeneko filma *Chicago* izan zen. Alai zinematik geroago eta ikusle gutxiago zituen eta galera ekonomiak areagotuz joan ziren. Iraganean beste zinema komertzial batzuk ere egon ziren Arrasaten.

XX. mendearren hasieran lehenengo filmak eman zituzten Arrasaten. San Juan Bautista elizaren atzeko aldean *cachoborrachos* delakoak eta santuak gordetzen zituzten, eta han ematen zituzten filmak. Geroago, udaletxeko oso bilkuren aretoan zinema mutua eskaini zuten, testurik ere ez zuena. Hala, filma ikusten zebiltzan bitartean, herritar batzuek filmaren gaineko azalpenak ematen zituzten. Horien artean ezagunena *Txomin Txiki* izan zen.

1918an, testua zuen zinema mutua heldu zen Arrasatera, eta film horiek Novedades-Mardo zineman ematen zituzten. Mardo etxea Olatre kaleko 10. zenbakian zegoen eta jabea Benito Abarra-tegi zen. Zinemarako sarrera txakur handi bat edo hiru xemaiko kostatzen zen (10 edo 15 zentimo). Novedades-Mardon, batez ere, *western*-ak ematen zituzten, eta zinema areto hari esker Eddie Polo aktorea oso ezagun egin zen Arrasaten.

NOVEDADES-MARDO ETA TRINKETA

Novedades-Mardo 1926an itxi zuten. Mardo edo Marduena -batzuek horrela deitzen zioten- oso areto txikia zen, 100 lagunendako modukoa. Etxeari itsatsita zubia zegoen, eta lokala hobeto aprobetxatzeko, filmak emateko proiektagailua zubian jartzen zuten. Herritar batzuen esanetan, behin, uholde batek zubia eraman zuen. Mardo ixteko arrazoietakoa bat izan zen Maalako trinketean hasi zirela filmak ematen.

Maala kaleko Okendo etxean pilotan egiteko trinket pribatua zegoen. Herritarrek pilotan egiteko errentan hartzen zuten, eta horrez gain, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan jarleku tolesgarriak jarri eta filmak ematen hasi ziren. Gertaera haien testigantza eman digutenek, Juan Periko eta Agustin Azkoaga anaiek, trinketean ikusi zituzten filmen artean honako hauek nabarmendu dituzte: *El jorobado de nuestra señora de París* eta *La portera de la fábrica*, besteak beste. Azkoaga anaiek gogoan dute filmak ematen zituzten bitartean, musika zuzenean jotzen zutela: hain zuzen ere, Usobiagak pianoa jotzen zuen eta Nikolas Zarraoak, berriz, biolina.

20ko hamarkadaren bukaer-



ARRASATE PRESS

Argazkian, Ferixaleku inguruan eraiki zuten Gurea zinema aretoa. 80ko hamarkadaren bukaeran gaztetxea izan zen.

Olatre kalean zegoen Novedades-Mardo zinema aretoan 100 lagunendako lekua zegoen

ran, Cristobal Bedia arrasatearrak herriko lehenengo zinema komertziala egin zuen. 1928an eraiki zuen, gero Roneo enpresa egin zuten leku berean. Bedia zinema aretoa Lizaur arkitekto oñatiarrak egin zuen, baita han-

Bedia eta Popular zinema aretoetako jabeek euren artean izugarrizko lehia izan zuten

dia egin ere. Butaka-patioko sarrera 75 zentimo kostatzen zen, eta palkoak ere bazituen.

Cristobal Bediak Teatro Bedia zinema eraiki eta oso denbora laburrera, trinketeko jabeek eta haien lagun batzuek beste zine-

70eko hamarkadan hiru zinema areto komertzial egon ziren herrian: Ideal, Gurea eta Amaia

ma areto bat eraikitzea erabaki zuten. Izan ere, Bedia zinematik trinketari kalte egin zion, eta haiek haserre zeuden. Herriko Plazan kokatuta zegoen Cafe Universal (egungo Kajoi taberna) erosten ahalegindu ziren, baina azkenean,

Resusta (egungo Iturriotz) kaleko ortu batzuetan beste zinema areto bat eraiki zuten. Cinema Popular izena jarri zioten; geroago, Ideal izena hartu zuen, eta azken urteotan Alai moduan ezagutu dugu.

BEDIAREN ETA POPULAR-EN ARTEKO LEHIA

Popular zinema aretoa oso txukuna zen. Hark ere palkoak zituen. Eraiki eta denbora laburrera, honako hauek erabiltzen zituzten palkoak: Eugenio Etxeberriak, Añibarrok... Zinema komertzial bi haiek denboran bat egin zuten, eta sasoi hartan, soinua eta berba batu zitzaizkion zinemari. Zinema areto biek izugarrizko lehia zuten euren artean, eta filmen estreinaldiak Arrasatera ekartzen hasi ziren. Are gehiago, behin baino gehiagotan Arrasaten Donostian baino lehenago estreinatzen zituzten filmak. Lehia hari esker, arrasatearrek eta inguruko herrietako lagunek punta-puntako filmak ikusi zituzten. Bedia zinema aretoan eman zuten lehenengo filma *El Correo del Zar* izan zen. Popular aretoen, oster, *El arca de Noé*. Sasoi hartan, zinema areto biak bete-beteta egoten ziren.

Urte batzuk geroago, Cristobal Bediak zor handiak egin zituen, eta aretoa saldu egin behar izan zuen. Gero, esan bezala, Roneo enpresa kokatu zuten han.

IDEAL ETA GUREA

Espainiako gerra amaitu ostean, Popular zinema aretoko jabeek berorri izena aldatu egin zioten, izen haren ustezko kutsu errepublikarra kentzeko, hain zuzen ere. Ideal zinema izendatu zuten, eta lanean segitu zuen, lehiakide barik.

Bestalde, gerra aurretik, Arrasateko batzokiak Gurea pilotalekua eta zinema izan zena eraikitzea erabaki zuen. Hasieran, pilotalekua edo eskola euskalduna eraikitzeko eztabaida izan zuten, baina biak egitea erabaki zuten. 1932an eraiki zuten, eta pilotalekuaren atzeko aldean Francisco Mendizabal eta Juanito Etxeberria maisuek eskolak ematen zituzten. Gurea pilotaleku estalia zen, Maalako trinketa baino askoz handiagoa, harmailekin.

Behin Espainiako gerra bukatu ondoren eta batzokia itxita, On Jose Maria Arizmendiarrietak eta Juventud Deportivak pilotalekuaren jabetza eskuratzen ahalegindu ziren, herriak probetxua atera ziezaioten, eta horretarako akzio guztiak erosi zituzten. Teatro Cine Gurea egin zuten.

1945ean, Donostiako Jose Miguel Zubillaga enpresaburuak Ideal zinema aretoa erosi zuen. Gerora, haren semeak eutsiko zion zinema aretoari, aurtzen itxi duen arte.

Hiru zinemei kalte egin zien telebistak

60ko hamarkadan, Gurea eta Ideal aretoak zeuden herrian. Aste bukaeretan izugarrizko jendetza joaten zen filmak ikustera, eta sarritan, filma ikusi barik kalean ez gelditzeko, aurretik lekua hartu behar izaten zen.

70eko hamarkadan, berriz, etxe askotan telebistak jarri zituzten, eta zinema aretoek zelanbaiteko beherakada izan zuten. Hala ere, Gurea eta Ideal zinema aretoei beste areto berri bat batu zitzaion: Ferixalekuan Amaia zinema egin zuten.

Oraindik herritarrek zinemara joateko ohitura zuten, eta, orain ez bezala, jendea ez zen Gasteizera joaten filmak ikustera.

80ko hamarkada erdialdean, Gurea zinema itxi egin zuten -gero, hura gaztetxe bilakatu zen-, baita Amaia ere. Amaia zinema Udalak erosi zuen eta Amaia Udal Antzokia bilakatu zen. Sasoi hartan, Ideal zinemari Alai izena jarri zioten.

Gaur egun herrian zinema ikusteko aukera bakarra Amaia antzokiko eguene-tako zinekluba da. Ez dago besterik.


ERAKUSKETA BEREZIA/ Erakusketa aretoa Etxaluze baserrian

Lorentxo Altubek erakusketa zabaldu du Etxaluze baserrian; oraingoz pribatua da

UBANE MADERA

San Andres auzoko Etxaluze baserriak oso ukiulu berezia dauka. Animaliak beharrez, eskuz egindako musika tresnak eta antzinako baserri tresna berriak daude hormetan zintzilik. Guztiak ere Lorentxo Altuberen eskuek urtetan eta urtetan landutakoak dira.

Semeari laguntzearen txalapartak egiten hasi zen Lorentxo Altube 1982an. Albokak etorri ziren gero, eta apurka-apurka euskal jatorrizko musika tresna mordoa egin ditu 21 urte hauetan. Orain, horiek guztiak batu, eta Etxaluze baserrian ipini ditu, txukun-txukun, museoa izango balitz bezala. Eta ez hori bakarrik: musika tresnekin batera, baserrian bertan aurkitutako antzinako tresna berriak ipini ditu Lorentxok: "Gaur egun baserriko tresna zahar larregi botatzen dira; hemen dauden gauza ederrak ikusita, batzen-batzen hasi nintzen, berri-ekin egin nituen, eta seme-alabek lagunduta egin dut hau guztiau", kontatu digu.



Argazkian Lorentxo Altube ageri da, berak berritutako baserriko antzinako tresnekin; atzeko aldean arotz-mahai oso-oso dauka.

ORAINGOZ, PRIBATUA

Oraingoz, baina, erakusketa berezi hori pribatua da, "familiakoek disfrutatzen", Lorentxoren esanetan. Baina, era berean, apurka-apurka lekuaren berri izan duten zenbaitzuk bisitatzen joan direla ere esan digu. Aurrera begira bere museotxo leku publiko izan daitekeela onartzen du, baina hori ez dago Lorentxo Altuberen eskuetan.

BASERRIKO ERREMINTAK

Kontuak kontu, Etxaluzeko ukiulan badago zer ikusi. Sartu eta berehala, baserriko tresna mordoa daude, asko eta asko ezezagunak

Musika tresnekin batera baserrian bertan aurkitutako antzinako tresna berriak daude

jende gaztearendako. Laiak, uzta-rria, segak, zerrak, aitzurrak, arotz-mahai osoa, igitaiak, zorroztarria, Etxaluze harrobiko barreñoak, mailuak...

Hari, haize eta perkusio instrumentuak daude, 21 urtean egin dituenak

MUSIKA TRESNAK

Eta ukiulan barrurago musika tresnak daude: hari, haize eta perkusio instrumentuak. Gehienak euskal jatorrizkoak dira, baina


Urkulura bideko Ojala jauregiaren maketa ikus daiteke, barrualdeko zatiketa guztiarekin

bada kultura urrunetako tresnaren bat edo beste. Albokak, harpak, ttuntunak, tobera, dultzainak, lauteak... daude. Baina bereziki txalapartak dauka leku handien.

Izan ere, sakon aztertu du tresna hori Lorentxo Altubek. Besteak beste, hainbat egur mota erabilita tresnak ateratzen duen doinuaren tinbrea aztertu eta kalkulatu du dezibeliotan.

OTALA JAUREGIA

Bukatzeke, ezin aipatu barik utzi baztertxo baten Lorentxok gordetzen duen bitxikeria: Urkulura bideko Ojala jauregiaren maketa; egurrez landuta kanpotik eta barruko aldean, solairu guztien banaketarekin. Duda barik, ikustekoa da Etxaluzeko ukiulua.



Bide onetik doa liburuaren salmenta

Arrasate 1936, belaunaldi etena liburuaren salmentaren balorazioa egin, eta bide onetik doala esan digute liburuaren egileek. Hire liburu dendan eta Monte tabernan dago salgai, eta adierazitakoaren arabera, dagoeneko euskarazko aleak agortzekotan daude. Hortaz, uste baino salmenta hobeak lortu dituzte orain arte euskarazko aleetan. Guztira, liburuaren 2.000 ale argitaratu zituzten: 1.000 euskaraz eta beste 1.000 espainolez. 18 eurotan dago salgai liburuak.

LABUR

Datorren astean iritsiko dira Saharako umeak

Arrasateko Udalak jakinarazi digunez, datorren eguaztean, hilak 9, iritsiko dira Arrasatera Saharako Tyndouf kanpalekuko umeak. Guztira zortzi ume hartuko dituzte hemen. 7 eta 12 urte arteko adina dute umeek. Eta familia duten bikoteen etxeetara etorriko dira. Ekimenaren helburua da, besteak beste, ume horiek Tyndoufen bizi duten egoera latza zelanbait ahaztea eta, era berean, haien egoera osasun eta elikadura aldetik hobetzea.

ELKARRIZKETA

JULEN AREXOLALEIBA/IRAKASLEA

"Hurrengo urteotan hizkuntzen %50 galduko da; hizkuntza bat bi astean"

ARRASATE IRRATIA

Gizarte Foroak antolatuta, I. Jardunaldiak egin dituzte Gasteizen. Ekonomiarekin, gizartearekin eta hizkuntzarekin lotutako gaiak landu zituzten; tartean, Mondragon Unibertsitateko irakasle Julen Arexolaleiba izan zen han:

Zuk zeuk euskara izan zenuen berbagai. Esaten duzu globalizazioa hasi dela euskararen eragiten...

Hori ez da azken urteotako gauza, lehenagotik datorren zerbait da. Hala, badago galtzeko arriskua euskararendako eta beste makina bat hizkuntzarendako. **Orain lehen baino arrisku handiagoa?**

Bai. Azkeneko urteotan indartu eta areagotu egin da. Eta aurrerantzean, ematen duenez, hala segituko du.

Gaur egun honakoa esaten da: munduan 6.000-7.000 hizkuntza badaude, erdiak-edo mende hontan desagertu egingo direla. Esaten duten moduan, bi astean hizkuntza bat desagertuko da. Pentsa, adibidez, gaur egun munduan 181 hizkuntza daude hamar hiztun baino gutxiago dutenak. Beste 300 hizkuntzak 100 hiztun baino gutxiago dute. 1.000 hizkuntzak 1.000 baino gutxiago eta 1.700 hizkuntzak 10.000 hiztun baino gutxiago (10.000 hiztun baino gutxiago dauzkate hizkuntzen %60k). Eta beste multzo baten 100.000 eta milioi bat hiztunen bitartean duten hizkuntzak daude; gaur egun, euskara hor sartuko genuke. Bestalde, hizkuntzen %4 da milioi bat hiztunetik gora dituenak. Hala, badi-rudi euskarak ez duela etorkizuna



U.M.

ziurtatuta, nahiz eta 500.000-600.000 hiztun izan. Gurako genuke kontrakoa esan, baina...

Dena dela, hori ez da gertatzen hizkuntza txikiekin bakarrik. Adibidez, Holandan nederlandarekin kezka dute, ingelesaren eragina dela-eta: behin ingelesez jakinez gero, eta munduko informazioa-eta ingelesez bakarrik datorrenez, zein behar dago, adibidez, nederlandera itzultzen ibiltzeko? Horren ondorioz, kezka badute nederlandera ez ote den geratuko harreman afektiboetarako-eta. Hala bada, etxerako eta lagun arterako bakarrik erabiltzen bada, horrek beste belaunaldi pare

bat edo hiru bat irauango du.

Hortaz, kezkatzeko moduko datuak dira...

Askotan pentsatzen da hizkuntza hiltzen dela azkeneko hiztuna hiltzen denean. Baina ez da horrela. Hizkuntza galtzen hasten da hizkuntza horretan pentsatzen duen jendea bukatzen denean; hau da, euskal elebidunen artean euskaraz hobeto moldatzen direnak espainolez moldatzen direnak baino zenbat eta gutxiago izan, eta zenbat eta gehiago izan euskaraz jakin bai baina espainolez hobeto moldatzen direnak, euskararen egoera orduan eta txarragoa izango da.

Laster banatuko dituzte Udal talde berriaren ardurak

U.M.

Legeak esaten duenaren arabera, uztailearen azken aurreko astea baino lehen Udaleko batzordeburuak izendatu beharko dituzte Arrasaten. Osoko bilkura egin beharko dute horretarako.

Alkateak eta zinegotziek karguak hartzen dituztenetik hilabeteko epea ematen du legeak (lanegunak) Udal taldeak eta Udaleko sailen buruak izendatzeko. Horren arabera, uztailearen azken-aurreko astea da legeak zehazten duen muga; beraz, datozen bi asteotako egunen baten egin beharko du Udalak osoko bilkura. Edozelan ere, oraindik ez dute batzarrerako datarik zehaztu.

BATZORDEAK

Kontuak kontu, laster erabakiko dituzte zeintzuk izango diren datozen lau urteotarako batzordeburuak. Guztira, 13 batzorde dira. Honako hauek: Zerbitzuak eta Mantentze Lanak; Hirigintza eta Obrak; Euskara; Gizarte Zerbitzuak, Kontsumoa eta Ongizitatea; Emakumeak; Gazteria; Ogasun eta Kontuak; Ingurumena;

Auzoak; Kultura eta Kirola; Enplegu eta Garapen Ekonomikoa; Hezkuntza; eta Pertsonala. Eta, jakina, Alkatetza. Baina azken hori nori egokitu zaion badakigu.

BATZORDEAK

Behin batzordeen ardurak eta Udalarari dagozkion bestelako ardurak banatu eta gero (Mankomunitatearena, esate baterako), Udalaren funtzionamendua erabakiko dute; adibidez, ordu-tegiak (osoko bilkurak noiz egin...).

ZINEGOTZI BAT GUTXIAGO

Horrenbestez, gogora dezagun Inazio Lakuntza izango dela datozen lau urteotan Arrasateko Udalaren gidari. Hari laguntzen EAJ-EA koalizioko beste zortzi lagun izango dira; alderdi sozialistako bost zinegotzi; Ezker Batuko hiru zinegotzi; alderdi popularreko bi lagun eta Aralarreko bakarra. Izan ere, azken alderdi politiko horretakoek erabaki zuten ez zutela hartuko botoen arabera dagozkien bigarren zinegotzia, Arrasateko Sozialista Abertzaleen taldearen legez kanporatzea dela-eta, hain zuzen ere.



Gipuzkoako Batzar Nagusiak eratuta

Orain dela pare bat aste Gipuzkoako Batzar Nagusiak osatu zituzten Oñatin; eta joan den astean hartu zituzten karguak izendapena jaso zutenek. Horien artean, arrasatearrak ere baziren. Hala, Rafaela Romero (PSE-EE) bigarren presidenteorde izendatu zuten; eta Amaia Larrañaga (EAJ-EA), Paco García (PSE-EE) eta Joxe Etxeberria (Aralar) arrasatearrek euren karguak hartu zituzten. Argazkian Joxe Etxeberria ageri da, tente, mikrofonoaren aurrean.

Urteroko batzar orokorra egin du ARKO elkarteak

U.M.

Atzo, eguena, ARKOk urteroko batzar orokorra egin zuen Saiolango areto nagusian. Besteak beste, iazko ekitaldian gainbegiraturia egin zuten; baita ARKOREn kontuen zuritzea ere.

Urtero moduan, ARKOk deialdia egin zien bazkideei urteroko batzar orokorrean parte hartzeko. Atzo (eguna) arratsaldean izan zen. Besteak beste, ARKOk presidente Aitor Orobengoak bideratu zuen batzarra. Hala, guztira, sei puntu zituzten lantzeko gai-zerrendan. Lehenik eta

behin, 2002ko ekitaldiaren akta onartzea proposatu zieten bazkideei. Eta, horren ostean, iazko ekitaldian ARKOk izan duen jarduera azaldu zuten. Bukatzeko, 2002ko kontuen zuritzea egin zuten eta horren ostean, Zuzendaritza batzordeko kideak izendatu zituzten.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Hortaz, honako hauek izango dira aurrerantzean Zuzendaritza Batzordeko kideak: Aitor Orobengoa, Joxe Mari Muxika, Idoia Peñakoba, Joseba Ezpeleta, Nagore Zubizarreta, Mikel Irastortza, Naiara Altube, Marije Lezeta eta Leire Aperribai.



BOST URTEKO UMEEN DIPLOMA BANAKETA FESTA

Arizmendi Ikastolak festa egin zuen ekainean Monterron parkean: 5 urteko umeen diploma banaketa festa. Horrela deitzen da Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako saltoa ospatzeko Arizmendikoek antolatzen duten jaia. Orain dela lau urte egin zuten lehendabizikoz, umei merezi duten saria emateko asmoarekin. Umezaintza, San Viator Txiki, Olarte eta Santa Teresako ikasleak elkartu ziren Monterron parkean. Eurekin batera anai-arrebak, gurasoak eta irakasleak. Horrez gain, gaztetxoek Betizuko emanaldiarekin gazatu ahal izan zuten.

DEBAGOIENA ZIKLOTURISTA TALDEAREN IRTEERA

Erainean egin zuen Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak urtero egiten duten irteera berezia. Pirinioetara joan ziren, eta aste bukaera eman zuten han. Lehen egunean, Lazar eta Orhi portuak atzean utzi eta Soudet mendatea igota Pierre Saint Martinera iritsi ziren, eta handik Belaguako haranera jaitsi ziren. Domekako osteratxoa lasaiagoa izan zen: Anso eta Zuriza banatzen dituen haranean zehar osteratxoa. Gaiarreko Mausoleoan hainbat argazki atera eta bazkaria egin zuten, Erronkariko bazkari tipikoa: ogi-mamiak eta saiheskiak. Postrea asmatzea, zuen kontu.



UDAKO KANPAINA 2003

AUKEAk gertu du aurtengo Udako Kanpainako bigarren hamabostaldia

Uztailaren 14tik aurrera Udako Kanpainako bigarren hamabostaldia hasiko dute, eta kirol eskaintzak ez du behera egingo

XABIER URZELAI

Udako Kanpainako lehenengo hamabostaldia aurrera doa, eta uztailaren 11 da bigarren hamabostaldirako izena emateko azken eguna. Bigarren hamabostaldia uztailaren 14an hasiko da, eta 24an bukatu. Bederatzi egun horietan asko egongo da egiteko.

Kirola egiteko sasoi ezin hobea da uda, eta Udako Kanpainako lehenengo hamabostaldiko eskaintza aprobetxatu ez duzuenok oraindik garaiz zabiltzate; izan ere, dagoeneko zabalik dago bigarren hamabostaldian parte hartzeko izenemate epea. Hain zuzen, lehen hamabostaldian izandako kirol eskaintza bera izango da bigarren hamabostaldian ere; eskaintza zabala, kirol mota asko egiteko aukera.

BADAGO NON AUKERATU

Kirol jarduerak adinen arabera daude sailkatuta: 8 eta 16 urte arteko neska mutikoez arku tiroketa, multikirola, *skate*-a, esku pilota, squash eta tenisa izango dituzte aukeran. Kirol horiek astean barrena izango dira, eta gehienak goizetan edo arratsaldeetan egin ahal izango dira. Goizetan 10:00etatik 11:00etara eta arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara. Horrez gain, natura jarduerak ere egongo dira, zapa-tuetan.

16 eta 29 urte arteko herritarrek, tenisaz, squashaz, multikirolaz, *skate*-az eta arku tiroketaz gainera, aerobika, eskalada eta *spinning*-a ere izango dituzte aukeran. Adin horretako kirol jarduera guztiak astean barrena izango dira, eta hor ere goizez edo arratsaldez aukeratu ahal izango da. Goizetan 10:00etatik 11:00etara eta arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara. Azkenik, 30 urtetik gorakoek ere eskaintza zabala izango dute. Aurrerago aipatu ditugun kirolez gainera, muskulazio gela erabiltzeko eta gimnasia eta *aquagym*-a egiteko aukera ere izango dute. Horrez gainera, hirugarren adinekoendako multi-jarduerak antolatu dituzte: *aquagym*-a, *spinning*-a eta igeriketak.

Argi dago aurtengo kirol eskaintza zabala dela; hortaz, kirola egin gura duenak ez du aitzakiarik izango. Prezioei dagokienez, 8 eta 16 urte arteko kirol jardueretan, bazkide ez direnek 21 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkideek, berriz, 18 euroren truke hartu ahal izango dute parte kirol jardueretan. Zapa-tuetan izango diren natura jardueretan parte hartzeko gutxiago ordaindu beharko da: 14 euro



Uda partean, uretan egin daitezkeen kirolek protagonismoa hartzen dute: igeriketak, *aquagym*-ak...

bazkide ez direnek eta 11 euro bazkideek. 16 eta 29 urte arteko kirol jardueretan parte hartzeko ordaindu beharrekoa ere bera da: 18 euro bazkide ez direnek eta 21 euro bazkideek.

Azkenik, 30 urtetik gorakoek apur bat gehiago ordaindu beharko dute, baina kirol jarduera konkretu batzuetan bakarrik: aerobika eta *spinning*-a egiteko eta muskulazio gela erabiltzeko, bazkideek 21,75 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, sei euro gehiago ordaindu beharko dituzte: 27,75 euro. Gainerako kirol jarduerak prezio bera izango dute: 18 euro bazkideek eta 21 euro bazkide ez direnek.

GUTXIENKO PLAZAK BETE BEHAR


Kirol jarduera horiek egin ahal izateko, gutxieneko leku kopurua bete beharko da. Kirol jarduera gehienak egin ahal izateko, gutxienez, zortzi lagunek eman beharko dute izena. Badira beste kirol jarduera batzuk, aerobika, adibidez, leku kopuru handiagoa izango dutenak.

Udako Kanpainak eskaintzen dituen jardueretako baten izena eman gura duenak Musakolako kiroldegiko bulegoetara jo besterik ez du, edo 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu.

Hirugarren adinekoek multi-jarduerak izango dituzte: 'aquagym'-a gimnasia...

Kirol jarduerak egin ahal izateko gutxieneko leku kopurua bete beharko da

Bigarren hamabostaldian kirol eskaintzak ez du behera egingo; bera izango da



Aurten ere, besteak beste, squash egiteko aukera egongo da.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA



XABIER URZELAI

Martitzen goizean ehun neska-mutikok baino gehiagok Burgoserako bidea hartu zuten.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Martitzena ezkerro AKPko 104 neska-mutiko Burgosen daude, udalekuetan

AKPko neska-mutikoen hamar egun egingo dituzte Espinosa de los Monteros-en

XABIER URZELAI / AKP

Martitzenean, 10:00etan, Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoen Burgoserako bidea hartu zuten, hamar eguneko gura beste kirol egin eta ederto pasatzeko asmoarekin. Hamar begirale ibiliko dira zaintze lanetan.

Eta gura beste lan izango dute begiraleek, ehun neska-mutiko baino gehiago gobernatzeko ez da eta lan batere erraza. Han, baina, kirola eginez pasatuko dute egun osoa, eta seguru gaztetxoek nekatuta bezain gustura amaituko dutela eguna. Udalekuak Espinosa de los Monteros-en egingo dituzte, Gaztela Leongo Juntak kudeatzen duen kanpamentuan. Kanpamentu horretan, baina, Arrasateko gaztetxoak ez dira bakarrik egongo: beste leku batzuetatik joandako taldeekin egingo dute bat eta jende berria ezagutzeko aukera izango dute.

Ez da lehenengo aldia Arrasate Kirol Proiektuak udalekuak egiteko Espinosa de los Monteros aukeratzeko duena. Joan den urtean ere han egon ziren, horrelako ekintzak egiteko leku ezin aproposa da-eta. Kanpamentua oso leku aproposa dago kokatuta: herritik bi kilometro ingurura dago eta kanpamentuak hainbat zelai zabal ditu hainbat

kirol ekintza egiteko oso aproposak direnak. Horrez gainera, herriko Udal Igerilekuak kanpamentuaren ondo-ondoan daude, eta, hortaz, igerilekuetara joateko aukera izango dute. Udaleku horietara joan gaztetxoek hainbat kirol ekintza egiteko aukera izango dute, hala nola: rafting-a, bela, piragua, rapela, espeleologia, olinpiadak... Horrez gainera, udalekuetan ohikoak diren jolasek ere ez dute kalerik egingo, hala nola: tailerrak, gaurbelak, mendi irteerak... Ekintza batzuk kanpamentuan bertan egingo dituzte, baina beste ekintza batzuk egiteko hara eta hona ibiliko dira, eta horretarako fur-

gonetak erabiliko dituzte.

ESPINOSA DE LOS MONTEROS

Espinosa de los Monteros Burgosko iparraldean dago, kantabriar mendikatearen ondo-ondoren. 2.300 biztanle ditu, eta herri lasaia da. Kirol jarduerak egiteko prestatuta dago Espinosa de los Monteros: kiroldegia, futbol zelaia, igerilekuak, pilotalekua, autokrosa egiteko zirkuitua eta Lunadako eski pistak. Argi dago, baina, gaztetxoek ezin izango dutela eskiaz gozatu. Eta hori izango da, hain zuzen ere, egin ezin izango duten gauza bakarra, gainerako guztia eskura izango dute-eta.



ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Kanpamentuan ehunka jolas egiteko aukera izango dute gaztetxoek.

MUK eta Realak hitzarmena sinatu zuten martitzenean

X.U.

Martitzenean, Mondragon Unibertsitateko errektore Inaxio Oliverik eta Realeko presidente Jose Luis Astiazaranek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horri esker, MU Realeko entrenatzaileen eta koordinatzaileen prestaketaz arduratuko da, eta trukean, Realak taldeko kirolaren, kirol teknologiaren eta beste hainbat kirol arloren gaineko informazioa erraztuko dio. Hitzarmen horri esker, enpresak prestakuntza programak bideratuko dituzte, eta programa horiek enpresen beharren arabera antolatuko dituzte.

Hitzarmenaren arabera, hasiera baten hiru programa izango

dira: lehenengo programa kirol taldeen entrenatzaile eta koordinatzaileei egongo da zuzendua. Programa horren helburua kirolariekin lan egingo duten profesionalak prestatzea izango da; bigarren programak Realekin harreman zuzena duten kirol taldeen zuzendari eta arduradunak prestatzea izango da. Taldeen zuzendaritza hobetzea izango da helburua, talde kudeaketa, segitu beharreko estrategia, marketinga, eta abar.

Azkenik, hirugarren programak kirolaria izango du helburu: unibertsitate ikasketak prestatzea eta bakarkako tutoretza. Horrekin batera, MURI lagungarri izango zaio Realak talde-lanean duen esperientzia.


ATLETISMOA

Maria Jose Gil Puerto Ricon jokatu den Munduko Atletismo Txapelketan izango da

Maria Jose Gil Puerto Ricon dago, munduko beterano mailako atletismo txapelketan parte hartzeko gertu. Atleta arrasatearra 1.500 metroko eta 5.000 metroko lasterketan hartuko du esku.

Sasoian onen joan da Maria Jose Gil Munduko Atletismo Txapelketara. Ekainaren hasieran Gasteizen jokatu zen Euskadiko Txapelketan urrezko domina bi eskuratu zituen; arrasatearra azkarrena izan zen 1.500 metroko eta 3.000 metroko lasterketan. Horrez gainera, Espainiako Txapelketan ere egon berri da.

FOTOKIROLA



Jonathan Pérez, Euskadiko onena

Jonathan Pérez atleta mondragoetarrak berriro erakutsi du pertika-jauzian Euskadiko onena dela. Joan den zapatuan Mendizorrotzan jokatu zen Euskadiko Txapelketan mondragoetarrak urrezko domina eskuratu zuen, 4,70 metroko jauzia egin da. Oraingo aste bukaeran, berriz, Salamancan izango da Espainiako Txapelketan esku hartzen. Arrasatearra egin duen jauzi onena 4,90 metrokoa izan da, eta beste hamar zentimetro baino ez ditu behar Espainiako onenen artean egoteko.

Bigarren mailako saskibaloia entrenatzaile izateko ikastaroa

XABIER URZELAI

Astlehenean, bigarren mailako entrenatzaile izateko ikastaroa hasi zen Arrasaten. Horretarako, baina, lehenengo mailako entrenatzaile titulua izatea beharrezkoa da. Ez da ikastaro makala izango, saskibaloiko goi mailako titulua ateratzeko aurrez egin beharreko pausoa da-eta.

Saskibaloiko taldeek gura baino arazo handiagoak izaten dituzte entrenatzailea aurkitzerako orduan. Federazioak lan hori egiteko titulua eskatzen du, eta titulu hori ez dago edonoren eskura. Hala, Arrasate Saskibaloia Taldeak eta Gipuzkoako Federazioak antolatuta, astlehenean, bigarren mailako titulua eskuratzeko ikastaroa hasi zen Arrasaten.

Eskolak Musakolako kiroldegian izango dira, eta ikastarok hilabete iraungo du. Ez da ikastaro makala izango, egunero lau orduko saioak izango dituzte-eta: 17:00etatik 21:00etara. Ikastaro hori, baina, ez dago edonori zuzendua, lehenagotik lehenengo mailako saskibaloia titulua zutenendako da-eta; hurrengo pausoa egiteko asmoa dutenendako, alegia.



XABIER URZELAI

Iker Zubiria oñatiarra izan da aurtengo Arrasateko taldeko entrenatzailea.

Bigarren mailako titulua saskibaloiko goi mailako titulua atera ahal izateko aurreko urratsa da. Horrek esan gura du Musakolan emango duten ikastaroa maila handikoa izango dela. Bes-

teak beste, banakako eta talde oinarriak, joko arauak, metodologia, planifikazio eta ebaluaketa, jokoaren azterketa, talde zuzendaritza, legedia eta joko sistematik landuko dituzte.

FOTOKIROLA



Besaidekoak Pirinioetara aste bukaeran

Uztaila sasoi ona da mendira joateko, nahiz eta Besaidekoek ez dioten mendira joateko urte sasoiari begiratzen. Negu partean hainbat ekintza egin dituzte, eta oraingo aste bukaeran Pirinioetarako bidea hartuko dute. Bihar goizaldean irtengo dira, Lizarrara bidean. Hain zuzen, mendi zeharkaldia egingo dute Lizarratik Candanchura, eta domekan, Astundik Bious Artigueserako bidea hartuko dute. Irteera Garibai etorbidean izango da, 07:00etan. Ea eguraldiak laguntzen dien.



¿Ba al dakizu zer den DENA?

DENA establezimendu bakoitzean mila modelotik gora izatea da.

DENA urtebetez modelo guztiak bermatuta edukitzea da.

DENA marka-aukera handiena izatea da.

DENA prezio guztiak izatea da.

DENA, Eguzki-Betaurrekoetan DENA edukitzea da

OAKLEY

Ray-Ban

Bollé

DRAGON

MOSCHINO

ETNATE

DOLCE & GABBANA

VERSACE

CK

DRAGON

Carolina Herrera
New York

KILLER LOOP

GIORGIO ARMANI

Christian Dior

EVANEY

ROCHAS
PARIS

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko uztailaren 4a / 71. zenbakiaren gehigarri berezia



SAN MARTIÑAK 03

ITSASO LOPEZ DE BERGARA



ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Aramaioko Udalbatzak San Martin jai zoriontsuak opa dizkizue aramaiar guztioi.

Bixente Goikoetxea enparantza, z/g • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16



ALKATEARENAGURRA/ Mertxe Modragon

Urtebetean lan handia egin eta gero, Aramaioko jaien bezperan gaude. Jaiok gozatzeko, BIZITZEKO eta denok batera giro barean eta onean ibiltzeko izan behar dira; egoera gogorragoan bizi diren horiek guztioriek ahaztu barik.

Hala, alboratu ditzagun egun hauetan amorruek, ernegazioak eta intolerantziak eta bizi ditzagun jaiok Bakean.

Prestatu dizkiguten ekintzeekin aramaioarroi gure jaietan gozatzeko aukera ematen digutenei esker oneko zorionik beroena eman behar diet. Baita orain arteko udal-taldeari ere, egindako lan guztiarengatik.

Elkargunerako eta elkarrizketarako bideak aurkituko ditugulakoan.



JAIBATZORDEARENAGURRA

Egunkaria itxi digute eta berria kalean da hitza ukatu baina gogo mintzo da Arabako bailara honetara jai garaia heldu da San Martin San Fermin bezperan ospatu beharrekoa da. Izan zaitezte zoriontsu Ametsa egi bilakatuko da-ta

Jai batzordeakoak



Jai batzordearen emaitza

Lau lagun ibili dira jaiak antolatzen: Aitziber, Itsaso, Txema eta Itziar. Otsailean hasi ziren jardunean, eta lan handia egin dute eskuetan duzuen egitaraua betetzeko. Kontatu digutenez, iazko esperientzia aprobetxatu, eta errazagoa egin zaie bidea. 18.000 euro eman dizkiete guztia antolatzeko; iaz baino 6.000 gehiago. Eta igoera igarri egin du Jai batzordeak. Esan beharra dago azken bi urteotan ez bezala, barikurako kontzertuak antolatu dituztela. Era berean, herritarrei jaietan parte hartzeko eskatu gura die Jai batzordeak.

KONTUAN HARTZEKOAK

LUDOTEKA ETA LIBURUTEGIA

San Martin jaiak direla-eta, kultura etxeko ludoteka eta liburutegia itxi egingo dituzte. Eta gero, jaien ostean, ludoteka itxita egongo da, umeak udalekuean ibiliko direlako. Liburutegiak, berriz, udako ordutegia izango du; hala, 10:00etatik 12:30era egongo da zabalik. Abuztuan bata zein bestea itxita egongo dira, irailera arte.

AUTOBUS ZERBITZUA

Jaiak direla eta, gaur, bari-kua, 18:00etatik aurrera eta astelehenean egun osoan, autobusa ez da herri barrura sartuko, eta saihebidetan izango du geltokia; Iturroste gainean, hain zuzen ere.

DANTZA TALDEA

Betiko moduan, jaietan saioak egiten ekin eta ekin ibiliko da Lagun Artean dantza taldea. Baina, azkenaldian gertatu den moduan, oraindik ere jende faltan daude. Adierazi digutenez, azkenaldian sei bat nagusi animatu dira dantzarako, baina jende gehiago behar dute, dantzak ahalik eta hobeto egiteko.

DATORREN ASTEAN, GEHIAGO

Datorren astean ere egongo da zer ikusi Aramaion: bari-kuan, Luis Aranburu Big Band-en kontzertua egongo da plazan; eta zapatuan, Arrantza Txapelketa eta pilota partiduak jokatu dira.

OSASUN ETXEA

Osasun etxean ere badute eragina jaiak. Hala, datorren uztailearen 7an, astelehenean, itxita egongo da. Egun horretan mediku edo erizain zerbitzuaren beharra izanez gero, 17:00ak arte Arrasateko anbulatoriora joan beharko da; eta hortik aurrera, larrialdietara. Gogora ezazue, era berean, Aramaio-ko osasun etxeko medikuarekin edo erizainarekin berba egiteko telefono zenbakia aldatu egin dutela; hemendik aurrera honako hau erabili beharko da: 945 44 59 25. Gainerako telefonoek berdin segitzen dute: txanda eskatzeko: 945 44 53 40; eta larrialdietarako: 945 46 11 11

artizar



Label kalitatea duen esnea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zabola-Azkoaga
ARAMAIO
945 44 51 58



Wnboto
ramaixo aberna

Musika eta giro paregabea

Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

EGITARUA

JAI ETAKO EGITARUA

Barikue, 4

19:00 Pregoie eta txupinazue: herriko bertsolarixek plazan.
19:30 Sebastopoleko Titiriteruek (kalejirie).
24:00 Kontzertue: Sakre (herriko taldie).
Gatibu
DJ-ak: disko fiestie.

Zapatue, 5

11:30 Futbito partiduek kiroldegixen, Bañera taldiek antolatute.
12:30 Kale antzerkix: *Pantonimas*.
16:30 Plater tiroketie (errekorridue Kurtzeta gaiñien).
17:00 Txirritolinpiadak.
Txirritola Euskara Elkartiek antolatute.
18:30 Herri kirolak. Betagarri herri kirol taldien erakustaldixe.
Atsaldien TRIBU TXIPITA perkusio talde lekittarra.

Domekie, 6

12:00 Meza Nagusixe (Bixente Goikoetxean mezie Sol-en).
Mezan ostien dantzariyek Herriko Plazan.
Eguerdxen herriko trikitilarixek kalien.
17:00retan hasitte haur parkie plazan (danetarik: ludotekie, zezen mekanikue eta puzgarrixek).
19:00 Galiziako dantzari eta gaitarixek: *Dolces Lembranzas*.
19:30 Bertsolarixek (Igor Elortza, Amets



TRIKITILARIAK KALEAN IBILIKO DIRA



TXUPINAZOIA JAI BATZORDEAK BOTAKO DU



DANTZA TALDEA FIN-FIN IBILIKO DA



KALE GIROA ONDO BEROTUKO DUTE

Arzallus, Aitor Mendiluze eta Asier Otamendi).
Ostean, Papargorri abesbatzaren saioa.
22:30 Erromerixie Kiñu taldiaz

Astelehena, 7

11:30 Sebastopoleko Titiriteruek: zirko taillerrak.
12:00 Mezie herriko hilddakuen alde.
18:00 Arrasate Musikalen emunaldixe.
17:00 Mangerazue.
Atsaldien herriko trikitilari taldie kalietan.
19:00 Paillazuek: Kiki, Koko eta Flash.
21:30 Herri afarixie.
23:00 Dantzaldixe. Amaiur taldie.

Barikue, 11

Luis Aranburu Big Band-en kontzertue
Noix: illunkeran
Non: plazan.

Zapatue, 12

Arrantza Txapelketie
Goixien, Ibarran.

Txosnetan

Egunero zabalduko daue, 20:00xetan.
Barikue, 4: gabien manifestaziñue.
Zapatue, 5: gaba osuen KUBA FESTIE.
Domekie, 6: 12:30ien, enkarteladie paradan parien.
Astelehena, 7: 18:00etan panel bat egingo daue txosnetan. 04:00-05:00ak aldera txokolatadie.

dukiena

dukiena

J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO

ELKARRIZKETA SAKRE

HERRIKO MUSIKA TALDEA

“Aramaioko kontzertuak esango digu aurrerapausorik egingo dugun edo ez”

U.M.

Jaietako aurreneko egunean Sakre taldeak kontzertua eman du, Gatibu bizkaitarrekin batera. Orain dela urtebete eskas sortu zuten Sakre lau gazte aramaioarren. Jaietako jendaurrean egingo duten bigarren kontzertua izango dute.

Aurkezpen modura, zeintzuk zarete Sakre?

Julen Agirre (gitarra jotzailea), Jose Antonio Arias (baxu jotzailea), Patxi Godoi (abeslaria) eta Iñaki Urizar (bateria jotzailea).

Noiz sortu zen?

Sortu ez zen sortu gure artean berba eginda. Hasi ginen nor bere instrumentuak jotzen eta Patxi kantuan; eta gure lokalari esker elkartu ginen. Bi koadrilatakoak gara.

Arazoren bat ei duzue izenarekin...

Bai. Bateria jotzaileak hiztegian aurkitu zuen izena (Iparraldean *sorginkeria* esan gura du *sakre* berbak). Izenen bat ipini behar genuela eta erabaki genuen Sakre ipintzea. Aurrera begira ikusiko dugu zer egin. Kontu da denon gustuko izen bat aurkitzea oso gaitza dela.

Musikari dagokionez, zein estilo da zuena? Baduzue eredurik?

Hardcore motakoa. Metal hardcorea. Ez dugu eredurik. Taldekide bakoitzak berea du. Mota askotako kantuak ditugu.

Zenbat abesti dituzue?

13-14 bat bai. Eta bertsiorekin pare bat.



Eta letretan zer esaten duzue?

Denetik apur bat. Politikatik hasita... Adibidez, gure lehenengo kantua Abiadura Handiko Trenaren kontrakoa izan zen; presoaren gainean ere badugu beste kantua; Hirugarren Mundua (Afrika aldean dauden arazoak salatzen); Frantziako Mitard izeneko kartzela mota salatzen dugu; eta egunerokotasunarekin lotutakoak ere badaude: 18 urterekin lan egin behar

dela...

Eta baduzue pentsatuta abesti horiekin guztiekin zer egin? Grabatu...

Oraingoan, guretzat jotzen dugu. Oraindik ikasten eta ondo pasatzen gabilta.

Arrasaten kontzerturen bat egitea eskainiz gero...?

Akaso bai. Baina, nire iritziz, Aramaioko kontzertuak esango du aurrerapausorik egingo dugun edo ez. Izan ere, metro biko altue-

ran igota jotzean, gauzak beste modu baten ikusten dira.

Kantuak eta musika asmatzeko orduan zelan konpontzen zarete?

Musikarekin Julen ibiltzen da, gehienbat, eta letra gehienak Patxi egiten ditu, Joseanen laguntzarekin. Gero, Iñakik Julenen erritmoa hartzen du, eta horren ondoren denok bat egiten dugu, nork berean.

Aramaioko musika talde bakarra zarete?

Beste gazte talde bat ere badago, baina hasten dabilta.

Horren aurrean, zelan ikusten duzue Aramaioko egoera? Adibidez, Arrasaten musika talde mordoa dago...

Hemen gure estilokorik ez dago, gu lau gara. Jotzeko orduan jendea nagia da, eta ez dauka iniziatibarik. Iniziatibarekin gauden lau bakarrak elkartu gara.

Musika tresnei dagokienez, ikusten dut egoe-

“Lehenengo kantua AHTren kontrakoa izan zen”

“Jotzeko orduan jendea nagia da, eta ez du iniziatibarik”

“Oraindik ikasten eta ondo pasatzen gabilta”

ra ona duzuela hasiberriak izateko...

Uda osoan lan egin, eta diru guztia horretarako!

Eta zelan ikasi duzue?

Hori da daukagun gauza berezietako bat: ez digu inork erakutsi. Betidanik gustatu izan zaigu musika, beti musika entzuten... Esperientziarekin ikasten da. Badirudi horrela esanda ez daukagula ideiarik ere ez, baina urteekin esperientzia hartzen da.

Aurrera begira egingo duzue zerbait, ala? Bestela ito egingo zarete...

Seguru aski bai. Erritmo onean goaz, urte eta erdian 13 abesti ateratzeko... Kontua da egunero egiten ditugula entseguak (pare bat ordu-edo). Ikasteko egiten dugu. CD bat grabatzeko asmoa dugu, oraingoan, guretzat. Aramaioko kontzertua oso garrantzitsua da guretzat. Gurekin harremanetan jartzeko, deitu: 605 74 55 13 edo 945 44 53 34.

UXARTE

• Bost logela komunekin
• Bazkari eta afariak

Nekazaldirismoa

Untzilla (Aramaiio) • Tel.: 945 44 51 46 • Faxa: 945 44 59 10
uxarte@euskalnet.net

ANBOTO, S.C.

Zerbitzuak
Garbiketak
Lorazaintza

Bixente Goikoetxea 7A. ARAMAIO
Tel.: 945 44 53 16 / 651 70 41 45

TXIRRITOLINPIADAK

Proba bereziak egongo dira Txirritolinpiadak amaitzeko

Egunean bertan agertzen denak ere izango du parte hartzeko aukera

Ibarratik gora

**Uztailak 5
17:00etan**

Oinez eta bizikletaz ibili beharko dute. Bukatzeko, proba bereziak dituzte.

U.M.

Gustuko dituzte herritarrek Txirritolinpiadak, eta aurten, laugarren urtez, parte hartzeko aukera izango dute. Zapatuan hasiko dira, 18:00etan, Kurtzetan gora.

Ibilbide Urdina (12 eta 16 urte artekoendako) eta Ibilbide Berdea (16tik aurrerakoendako) presatu ditu Txirritola Euskara Elkarteak aurtengo Txirritolinpiadetarako.

Hala, gazte mailako taldeak Bañera parketik irtengo dira, 18:00etan, lehen esandako moduan; eta Iru-bieta, Arriola, Arrikoiti, Arraburu, Iturrieta eta Ibargoiko bidegurutzeara zeharkatu beharko dituzte, eta gero berriro ere parkera jaitsi.

Nagusiak ere parkean hasiko dira, eta gero Iru-bietatik joko dute; baina Iru-bietatik Kurtzetarako bidean gora egin beharko dute. Horren ostean, Uri-barri, Arriola, Arexola, Arrikoiti, Arraburu, Iturrieta eta Ibargoiko bidegurutzeara zeharkatu beharko dituzte, eta gero berriro ere parkera jaitsi.

Ibilbide horretan, guztira, hiru proba egin beharko dituzte. Hala, talde biek bizikletarekin hasiko dituzte Txirritolinpiadak. Eta Arrikoiti baserriraino joan beharko dute bizikletaz. Han aldaketa egingo dute, eta plazaraino oinez iritsi beharko dute.

Eta ez hori bakarrik; herri olinpiada horiekin bukatzeko, trebezia proba



TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

Parkean hasiko dira gazteen eta nagusien Txirritolinpiadak, bizikleta probarekin.

bereziak asmatu ditu Txirritola Euskara Elkarteak: ura ahoan hartu eta botilak bete-bete egin beharko dituzte hirugarren proba-ira iristen direnek. Eta, lokotxak batzeko proba eta zaku lasterketa ere gainditu

beharko dituzte parte-hartzaileek.

HIRUKO TALDEAK

Txirritola Euskara Elkarteak kide Ana Martiarenak azaldu digunez, betiko moduan parte-hartzaileek

hiruko taldeak egin beharko dituzte Txirritolinpiadetarako.

Ana Martiarenak gaineratu digu tabernetan ipinitako zerrendetan eman beharra zegoela izena, baina egunean bertan norbai-

tzuk agertuz gero, haiek ere izango dutela parte hartzeko aukera.

ERLOJUPEAN

Ordularia eskuetan dutela zainduko dute proba Txirritolakoeak. Hala, aurre-

neko iristen dena izango da garaile; ez dago puntuaziorik eta antzerakorik; denbora laburren egiten duenak irabaziko du, beste barik. Eta gero sari bana-keta egingo dute.

SARIAK

Hain zuzen ere, nagusien mailan, 150 euro emango dizkiote talde irabazleari eta 70 euro bigarren sailkatzen den taldeari.

Gazteen mailan, berriz, 100 euro jasoko ditu talde irabazleak eta 50 euro bigarren geratzen denak.

ENTRENATUTA, HOBETO

Ana Martiarenak kontatu digunez, adin eta mota guztietako lagunek parte hartu ohi dute Txirritolinpiadetan; edozelan ere, gaineratu digu entrenamendu apurren bat duenak abantaila izaten duela horrelakoetarako; batez ere bizikletarekin egin behar den probarako. Jakina, nagusien ibilbidea apur bat gogoragoa dela onartu du Anak, baita gazteen kasuan 16 urteko batek 12 urtekoak baino errazago egingo duela ere. Baina hori parte-hartzaileek eurek ere badakite; hortaz, ez da inor kikilduko.

Eta, jakina, kontua parte hartzea eta dibertitzea da, eta zenbat eta aramaiar gehiagok eta jende mota gehiagok parte hartu, orduan eta dibertigarriagoak izango dira Txirritola Euskara Elkarteak antolatutako olinpiadak. Azken baten, jaietan egonda, horixe da garrantzitsuena eta.

Hortaz, animo, guztioi, eta zorte on Txirritolinpiadetan!

Talde biek bizikletarekin hasiko dituzte Txirritolinpiadak. Eta Arrikoiti baserriraino joan beharko dute bizikletaz

Entrenamendu apurren bat duenak abantaila izaten du, baina edozein motatako jendeak parte hartu ohi du

ESPEZIALITATEAK

- Bisigua parrillan.
- Legatza.
- Txuletak.
- Legatzkokoteak.

ANAI ERRETEGIA

Nardeaga, 32 • Tel.: 945 44 51 01 • ARAMAIO

ITURRIOSTE GARAJEA

Nekazaritza makinen eta autoen salmenta eta konponketa. Olio, gurpil eta balazten konponketa

Ondo ibili jaixetan!!

Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

PLATER TIROKETA

Arabako txapelkunek plater tiroketan jardungo dute

'Ibilaldia' izeneko proba egingo dute, goizez eta arratsaldez

U.M.

Aramaion plater tiroketarako zaletasun handia dago, eta jaietan ezin falta kirol hori lantzen duen ekitaldirik. Bihar izango da, 11:00etan, eta 16:00etan segitu egingo du.

Bihar, zapatua, jokatuko dute aurtengo San Martin saria. Kurtzeta-Gain elkarteak eta Oilgor ehi-za elkarteak antolatu dute ekimena. Kurtzeta-Gain elkarteko kide Juan Luis Nafarratek adierazi digunez, 11:00etan hasiko da proba, Kurtzeta gainean; eta bazkaltzeko atsenediaren ostean, 16:00etan segitu egingo du txapelketak. Hala, arratsaldez parte hartu ezin duenak goizez parte hartu ahal izango du, eta alderantziz.

MODALITATE BERRIA

Ibilbidea izeneko modalitate berrian lehiatu behar dute parte-hartzaileek San Martin Sarian. Ehizaren imintzioa egiten duen proba da *Ibilbidea* proba. Hala, bost makina ibiliko dira platerak jaurtitzeko, eta, probaren izenak esaten duen moduan, ibilbide antzeko bat eginaz. Platerak modu eta altura desberdinetan botako dituzte, ehizako animaliek egiten dituzten mugimenduen antzera. Adibidez, untxiek edo eperrek egiten dituzten mugimenduak sinbolizatuko dituzte platerak; dudu barik, tiroa asmatzea gaitzagoa izango da.

Guztira 25 plater bota-



Argazkian, Amurrion jokatu zen Arabako Txapelketan parte hartu zuen aramaiar taldea.

ko dituzte makinek. Jakina, nork plater gehien bota hark irabaziko du.

JENDE UGARI

Plater tiroketan aramaiar askok parte hartzea espero dute antolatzaileek: 45-50

bat lagunek, hain justu ere. Kontua da plater tiratzaileekin batera herriko ehiztariak ere parte hartuko dutela txapelketan, aurtengo San Martin sariko proba Ehiza Federazioaren barrukoa da-eta.

ARABAKO TXAPELDUNAK

Eta parte-hartzaile ugari egoteaz gain, luxuzko taldea lehiatuko da Kurtzeta gainean. Besteak beste, han izango dira Arabako aurtengo txapelduna eta txapeldunordea. Izan ere, biak

hala biak aramaiarrak dira: guztien artean Arabako txapeldun Enrique Ullibarriarana da eta txapeldunorde, berriz, Martin Arriolabengoa herrikidea.

Amurrion eskuratu zuten garaipena, joan den

Ehizaren imintzioa egiten duen proba egingo dute: platerak ehizako animalien mugimenduak sinbolizatuko dituzte

Parte-hartze handia espero dute; edozelan ere, Aramaioko ehiztari eta tiratzaile guztiak parte hartzera animatu gura dituzte

Kurtzeta gainean

**Uztailak 5
11:00etan eta
16:00etan**

Ibilaldia izeneko proban 25 plater bota behar dituzte

maiatzaren 31n. Hogeita lau plateretara izan zen tiroketa, eta bi aramaiarrak oso pareko ibili ziren, harik eta Enrike Ullibarriarana nagusitu zen arte.

Horrez gainera, esan beharra dago Arabako Txapelketaren barruan, baina, laugarren mailan beste aramaiar bat gailendu zela: Angel Ullibarriarana.

Eta, hori guztiori biribiltzeko, Arabako Txapelketaren barruan Mini Foso izeneko proba jokatu zuten ekainean Kurtzetan; eta han, Oskar Arrizabala aramaiarrak aurreneko postua eskuratu zuen bere mailan.

Hala, ikusten duzuen bezala, maila altua izango du zapatuko tiroketa probak.

SARIAK ETA MOKADUTXOA

Hain justu, maila altu horri dagozkion sariak ipini gura dizkiote antolatzaileek Aramaioko San Martin sariari, baina ez digute beste ezer aurreratu.

Hori bai, adierazi digute txapelketaren ostean askaria emango dietela parte-hartzaile guztiei.

ANIMATU ETA PARTE HARTU

Horren harira, parte-hartzaileei dagokienez, eta nahiz eta parte-hartze handia egongo dela espero, antolatzaileek herriko ehiztari eta plater tiratzaile guztiak animatu gura dituzte txapelketan parte hartzera. Espero dute aurtengo proba berria ipini dutenez jende gehiago animatuko dela berez; edozelan ere, zenbat eta jende gehiago ibili egun hobe pasatuko dutela diote. Hortaz, gura duten guztiak egin diete gonbita.

MURU landetxea



- 3 logela bikoitz komunarekin
- Egongela
- Sukaldea erabiltzeko aukera

Gantzaga auzoa • Tel.: 945 44 53 65



BEHI-ALDE

ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.

Olaeta-Aramaio (Araba)

Zuzenbide postala

Apartado 44

20500 Mondragon



MONDRAGON
CORPORACION
COOPERATIVA

Tel.: 945 45 01 00

945 45 03 15

Faxa: 945 45 01 00

945 45 03 15

ONDO PASAU SAN MARTIN JAIK!

UMEAK

Umeek badute zer egin jaietan

Egunero antolatu dute zerbait umeendako

U.M.

Nagusien moduan, umeek ere izango dute zer ikusi eta zer egin herriko jaietan. Titiriteroak, haur parkea, pailazoak eta mangerarekin egiten den ekinaldia, besteak beste.

Gaur bertan, bari-kua, Sebastopoleko Titiriteroekin gozatzeko aukera izango dute Aramaioko txikienek; 19:30ean irtengo dira titiriteroak kalejiran. Hain zuzen ere, zirku kalejira egingo dute; titiriteroak euren musika tresnekin eta pailazo erraldoiekin irtengo dira, mundu osoa dantzan ipintzeko asmoarekin. Magia egingo dute, malabarismo saioak, akrobaziak, eta abar.



ITSASO LÓPEZ DE BERGARA

Haur parkean puzgarriak, zezen mekanikoa, eta abar egongo dira.

TXOTXONGILOAK ETA PARKEA

Bihar, zapatua, 12:30ean, Pantonimas taldearen eskutik umeek kale antzerkia ikusi ahal izango dute. Pantonimas-ek txotxongilo saioa egingo du.

Eta domekan, 17:00etan hasita, haur parkea ipiniko dute plazan. Umeek horrenbeste atsegin duten puzgarriak egongo dira, baita zezen mekanikoa ere, gainean jartzen ausartzen denarendako.

TITIRITERO IZATEN IKASI

Bukatzeko, azkeneko egunean, astelehenean, 11:30ean berriro ere Sebastopoleko Titiriteroekin ibiltzeko aukera izango dute umeek; oraingo honetan, zirku lantegietan. Hain zuzen ere, titiritero izaten

erakutsiko dute lantegietan: hankaluzetan ibiltzen, malabarismoak egiten, rokodromoan zintzilikatzen...

Gero, arratsaldean, 17:00etan plazan dute umeek hitzordua, mangeraren ur fresko-freskoarekin bai-

nua hartzeko. Eta horren ostean, Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoen saioa ikusi ahal izango dute, 19:00etan. Pailazoek jolasak egingo dituzte umeekin; betiere, musikak eta, jakina, pailazokeria dibertigarriek lagunduta.

Sebastopoleko Titiriteroek titiritero izaten erakutsiko dute: hankaluzetan ibiltzen, malabarismoak egiten...

KIROLAK

Kirola ikusteko aukera ederra

Areto futbola eta herri kirolak egongo dira zapatuan

U.M.

Urtetan jaietarako ezer antolatu barik egon eta gero, aurtent, Bañerakoek areto futboleant dituzte abileziak erakutsiko dizkigute. Bihar izango da, goizean goiz.

Nahiz eta jaien egitarauan ipini areto futboleko partiduak 11:30ean hasiko direla, Bañerakoek ordua aurreratzea erabaki dute. Kontua da hiru partidu jokatu gura dituztela; eta, aipatutako orduan hasiz gero, larregi berandutuko litzatekeela. Hala, aurreikuspenaren arabera, 10:30ean hasiko dira partiduak.

Bañerako arduradune-

tako batek, Alfonso del Campok, kontatu digunez, aurtengo Liga Txapelketan ibili diren taldeak ekarri gura dituzte aramaiarren kontra jokatzeko, lagun arteko partiduetan.

Hala, gazte mailako taldeak Gasteizko Olabide Ikastolako Urgatziren kontra jokatu du, Julian Serrano epaile gasteiztarren begiradapean.

Eta, bestalde, kadete mailako herriko bi taldeen kontra jokatzeko aukera bila dabilta Bañerakoak. Ezetzen bat zein beste jaso dute, dagoeneko aurtengo denboraldia bukatu da-eta, baina ez dute amore eman. Edozelan ere, aurkaririk lortu ezean, nesken kasuan, behintzat, euren artean jokatuko direla jakinarazi digute.

Kontuak kontu, eta

zalantzak zalantza, areto futbola gustuko dutenek hitzordua dute bihar, zapatua, goizean. Partiduak egongo direla segurua da, behintzat.

Eta gainera, partiduak bukatu ostean hamarretako koa banatuko dute neska-mutiko guztien artean.

BESTELAKO KIROLAK: HERRI KIROLAK

Areto futbolaz gain, beste-lako kirolak ikusteko aukera ere egongo da bihar. Arratsaldean, sei eta erdie-tan, Apodakatik etorriko den Betagarri taldeak herri kirol ekinaldia egingo du. Arabako herri txikietako eta Nafarroako kirolariek osatzen dute Betagarri. Hala, txingak, harri-jasotzea, aizkolariak, fardo-jaurtiketa eta antzerako kirolak egingo dituzte.



ARTIBOIA

Lagun arteko partiduak jokatu dituzte Bañerako areto futbol taldeek.

ARBEL S.A.T 16

Garantiazko pentsu naturalak



Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio



ITURRIETA sagardotegia

- Etxeko sagardoa.
- Txuletoia txingarretan erreta.
- Karta bariatua eta sagardotegiko menua.
- Eta gainera, plater konbinatuak eta ogitartekoak.

ABUZTUAN ERE EGUNERO ZABALIK!

ONDO PASAU SAN MARTIÑAK!!!

Arraga Auzoa • Tel.: 945 44 53 85 eta 657 79 02 90


BESTELAKOAK

Aipatu beharreko bestelako ikuskizun eta ekimenak

Dantzak, kantuak, bertsoak, txapelketak eta herri afaria ere egongo dira San Martinetan



KARTA-JOKOA, ETA DANTZAK GALIZIATIK Erretiratuek mus eta briska txapelketak jokatuko dituzte bihar, 16:30ean. Jai batzordeak esan digunez, Dolces Lembranzas taldearen saioa ikusgarria izango da. Eta, herriko trikitilariak jardun eta jardun ibiliko dira.



BERTSOLARIAK ETA PAPARGORRI Herriko bertsolariekin batera, Igor Elortza, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Asier Otamendi ibiliko dira herrien arteko desafioan; eta horren ostean, Papargorri gazte abesbatzak saioa egingo du.



MUSIKA BARRA-BARRA Barikuan Gatibu taldearekin hasi eta astelehenara arte, mota guztietako musika entzun ahal izango da. Hala, besteak beste, domekan, 12:00etan, Bizente Goikoetxearen meza izango da eta astlehenean Arrasate Musikalen saioa, 18:00etan.



HERRI AFARIA Gasteztik ekarriko dituzte herri afarirako jaki goxoak. 100 lagunendako menua enkargatu dute. Hirugarren urtez egingo dute afari berezi hori, eta mozo-rotuta joatea derrigorrezko ez den arren, ekitaldia girotzen asko lagunduko du.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

*Aramaiar guztioi, San Martin
zoriontsuak opa dizkizuegu*

Bixente Goikoetxea 2. Tel.: 945 44 52 08/Faxa: 945 44 52 76

ANTZERKIA/ Uztailearen 11n Pikor Teatro eta Zanguango antzerki taldeek kale-ikuskizuna eskainiko dute

Industriaren, lanaren eta ekoizpenaren umorezko kritika egingo dute

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, uztailearen 11n, Pikor Teatro eta Zanguango antzerki taldeek *Al fondo a la derecha* kale-ikuskizuna eskainiko dute. Umorezko ikuskizuna da, eta istorioa fabrika baten kokatuta dago. Ekoizpenari eta lanari kritika egiten die.

Datorren egubakoitzean, uztailearen 11n, Pikor Teatro eta Zanguango antzerki taldeek *Al fondo a la derecha* kale-ikuskizuna eskainiko dute Herriko Plazan. 19:30ean izango da.

1989an, Bekereke antzerki taldeko partaide bik, Anna Rita Fiaschetti eta Miguel Olmedak, Pikor Teatro taldea sortu zuten. Taldea Maeztun (Araban) kokatuta dago, eta dagoeneko ibilbide luzea egin du. Euren hastapenetan La Tirili taldearekin batera hainbat kale-ikuskizun egin zituzten: *Estofado de toro*, *La funerala*, eta beste batzuk. Horrez gain, Pikor Teatrotok bere kasa *Comando Fingilin* eta *K.O.* kale-ikuskizunak egin ditu, baita antzokirako ikuski-


zunak ere (*Azúcar y vinagre*, *Golpe de mano*, *Franki Stein*, eta beste batzuk). Pikor Teatro taldeko ikuskizunek umore handia dute, absurdoa lantzen dute eta kritika zorrotzak egiten dituzte. Horrez gain, eskoletarako lan bereziak prestatu dituzte: esaterako, sexuaren eta hiesaren gaineko *Ikutuz Ikutu* ikuskizuna.

ORAIN DELA 20 URTEKO IKUSKIZUNA

Orain dela 20 urte, Bekereke antzerki taldeak *Al fondo a la derecha* kale-ikuskizuna asmatu zuen. Izugarritzko arrakasta izan zuen, eta kale-antzerkiari beste ikuspuntu bat eman zion.

Maeztuko Pikor Teatro taldeak eta Salamancako Zanguango taldeak ikuskizun horri ukitu berria eman eta berriro prestatzea erabaki dute. Maiatzean estreinatu zuten, eta dagoeneko hamar aldiz antzeztu dute.

Al fondo a la derecha ikuskizuna fabrika baten kokatzen da; han lau langile xeble eta arduraduna aurkituko ditugu. Aktoerek umorezko kritika egiten diote lan esparruari, lanari berari eta ekoizpenari.



Arrasatear batek baino gehiagok *Al fondo a la derecha* ikuskizunaren testuinguruarekin bat egingo du.

PIKOR TEATRO



iarran



ILE APAINDEGI MISTOA

san ANDRESKO BRUSKING ILE APAINDEGIA ORAIN...
LEKUZ ETA IZENA ALDATUTA

IARRAN ILE APAINDEGIA

- ILE apaindegi mistoa
- ESTETIKA ZENTROA
- SOLARIUMA
- ILE-tratamenduak
- ILE-LUZATZEAK



Zerrajera 1. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 79
Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30
Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00
Abuztuan: 1etik-8ra eta 25etik-31ra zabalik

TRIKITIXA/Arrasateko Trikitixa Eskolak hamar kantuko CDa grabatu du

Arrasateko Trikitixa Eskolako 35 ikasle eta ikasle ohiek CDa kaleratu dute

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasle eta ikasle ohiek CDa kaleratu dute. Eskolako irakasleak, Maixa Lizarribarrek, zuzendu du grabazioa eta 35 gaztek hartu dute parte. Shot! estudioan grabatu dute eta hamar kantu ditu. Dagoeneko salgai dago musika dendetan.

Arrasateko Trikitixa Eskolak hamar urte bete ditu. Eskola horretatik irakasle asko pasatu dira, baina Maixa Lizarribar da hasieratik gelditzen den bakarra. Era berean, eskolak egoitza asko izan ditu, eta azkeneko bi urteotan Saiolanen dago.

KANTUAK PRESTATU ETA GRABATU

Orain dela urtebete CDa grabatzea bururatu zitzaion. Poliki-poliki kantuak prestatzen hasi ziren, baina Maixa Lizarribar irakasleak azaldutakoaren arabera, diskoa grabatzeko dirulaguntza jaso artean ez ziren lanean serio hasi: "Horrela, aurtengo Aste Santuan diru kontuak konfirmatu zirenean eta diskoa

kaleratzea posible zela konfirmatu zenean, nork zer jo erabaki genuen, eta jaien bueltan Shot! estudioan sartu ginen".

Hamar kantu grabatu dituzte: horietatik bi Maixa Lizarribarrek egin ditu, ikasleen laguntzarekin, beste hiru Jose Ramon Vitoriak idatzi ditu eta gainerakoak abesti herrikoiak dira. Eta emaitzarekin oso gustura gelditu dira. Diskoa azterketa sasoiaren grabatu zuten, eta horren ondorioz ikasleak lanpetuta ibili ziren. Hala ere, emaitza oso txukuna lor-tu dute.

Ez da ohikoa Trikitixa Eskolako CDa kaleratzea, eta beste eskola batzuek ideia txalotu egin dute. San Juanetarako kaleratu zuten CDa, eta ikasle eta ikasle ohiak kalean ibili ziren diskoak saltzen. Disko dezente saldu dituzte, baina oraindik ale dezente dituzte; izan ere, 800 kopia kaleratu dituzte. Musika dendetan eskura daiteke, edo triki_ arrasate@euskalerrria.org helbidean.

Hortaz, herriko Trikitixa Eskola osasuntsu dago, eta gaur egungo 100 ikasleak eta ikasle ohiak gogor dabilta lanean.



Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasleak CDak saltzen ibili ziren, kalean, San Juanetan.

KEPA ERRASTI

ELKARRIZKETA

ELISA ESPINA/ARTISTA

"Ordenagailuek arte sorkuntza egiteko aukera mordoa ematen dute"

I.B.

Elisa Espina bilbotarrak urte asko daramatza artean lanean. Besteak beste, margolanak eta eskulturak egin ditu, baina aspaldian arte digitala lantzen dihardu. Arregi markoztatze dendan erakusketa ipini du.

Noiz eta zelan hasi zinen margotzen?

Orain dela 16 bat urte hasi nintzen margotzen, Erreproduktzio Artistikoen Museoan, hain zuzen ere. Han, batez ere, giza irudiak margotzen ikasi nuen.

Horren ondoren, bestelako ikasketarik egin zenuen?

Bai, Arte Delineazioko azkeneko hiru ikasturteak egin nituen. Marrazketa geometrikoa ikasi gura nuen, ordurako miarrazketa figuratiboa ondo eza-gutzen nuen-eta. Horrez gain, arte plastikoekin eta ikus-entzunez-koekin ere lan handia egin dut;

antzerkirako *atrezzo*-a egiten ibilia naiz; Kukubiltxoko Mikel Diazekin apar-goma, beira-zuntza eta metakrilatoa lantzen ikasi nuen Artelekun...

Hortaz, denetik egin duzu, ezta? Ez dago zu margolari izendatzerik...

Margotu ere egin dut, baina aldi berean hainbat arlo lantzea gustuko dut. Gasteizko teknologia berrien eta irudien zentroan zuzendari artistiko lanetan ibili nintzen, eta materialen gaineko eskolak eman nituen.

Halako baten, ordenagailuekin lanean hasi zinen burubelarri...

Bai. Egia esanda, aurretik Autocad programa erabiltzen nuen, baina 1998an bat-batean tailer barik geratu nintzen. Horrek hasieran baldintzatu egin ninduen, baina ordenagailua erabiliz gero, ez dut lan egiteko leku handirik behar, eta etxean bertan egin dezaket lan. Ordenagailuek arte sorkuntza egiteko auke-

ra mordoa ematen dute.

Eta horretan hasi zinen...

Bai. 2002an, Bilboarteko esparru teknologikorako proiektua aurkeztu nuen. Proiektu hura lantzeko probak egiten nembilela, eskanerrarekin jasotako emaitzak bitxiak izan ziren, eta azkenaldian, sorkuntza hortik bideratu dut.

Zer ekarri duzu Arrasateko erakusketara?

Hogeita bat lan paper formatuan ipini ditut eta beste hamar paperean egin daude, baina altzairua eta soldadura ere badakate. Azken lan horietan, hain zuzen ere, pintura eta eskultura uztartu ditut.

Eta zelakoak dira lan horiek?

Eskanerrarekin irudiak zuzenean hartzen ditut, argazkirik erabili barik. Osagarriak dituzten giza gorputzeko atalak eskanearrekin ditut, eta gero manipulatzen ditut, kolorearekin, distirekin edo irudia handituta.



IKER BARANDIARAN

E, TXO!

GUREGAIK/ UDAN LANA AURKITU

Ikasleek lan egingo dute uztailan, diru apur bat irabazteko

IKER BARANDIARAN

Ikaslea izateak alde onak eta alde txarrak ditu. Diru gutxi edukitzea da alde txarrenetako bat. Arrazoi horregatik, hainbat gaztek uztailan lan egiten dute, batez ere abuztuan dirua edukitzeko.

Ikasleek, berandu jota, uztail hasieran hartzen dituzte oporrak. Batzuek, Mondragon Unibertsitateko ikasleek, esaterako, oporrak uztailan hartzen dituzten arren, gehienak irailera edo urrira arte oporretan egongo dira.

Hortaz, onerako eta txarreako, ikasleen oporrak luzeak dira. Eta gazteok ikasleak izanik, diru iturri murriztagoak izaten dituzte, eta baliteke oporretan kanpora joan ahal izateko edo lagunekin jairik jai parrandan ibiltzeko diru estra eskuratu gura izatea. Horretarako, proposena uztailan lan egin eta gero, abuztuan, aurretik irabazitakoa arekin gozatea da.

BURUJABE IZAN

Bide batez, uztailan lan eginez gero, gazteek oporretan gura dutena egiteko ez diete gurasoei dirurik eskatu behar, eta gazteak

Gazte arrasatear askok begirale lanak egiten dituzte, uztailan, udalekuetan

Gazte bat baino gehiago uztailan fabriketan lan egiten ahalegintzen da, baita lortu ere

askoz askeagoak sentitzen dira.

Besteak beste, uztailan lan egitea erabakitzen duten gazte arrasatearrek kooperatibetara jotzen dute. Beti ez da posible izaten, baina batek baino gehiagok saiakera egin, eta ibarreko fabriketan lana aurkitzen du. Betiere, fabrikek eurek uztailerako aurreikusita duten ekoizpenaren



ARTXIBOA

Arrasateko gazte askok Txatxilipurdiko udalekuetan begirale lana egingo dute.

arabera izaten da. Beste batzuek uztailan umeak edo zaharrak zaintzen dituzte, baina hilabete bakarra umea edo zaharra ohi-tzeko denbora laburregia dela-eta, hilabete bakarrerako ez dute jende askorik hartzen lanerako.

UDALEKUETAN BEGIRALE LANAK

Horiez gain, urtero herriko hainbat gaztek Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetan begirale lanak egiten ditu. Ez da aukera txarra izaten. Fabriketan lan egitea baino dibertigarriagoa eta askeagoa da, umeekin eta gazte-txoekin lan egiten da, baina, era berean, umeekin pazientzia handia edukitzea komeni da. Hori ere esan beharra dago.


Bestalde, ezagun da herriko taberna, jatetxe eta kafetegiek geroago eta langile premia handiagoa dutela. Ez lan handiagoko dutela, baizik eta geroago eta arrasatear gutxiagok lan egin gura dutelako aisialdian. Herri-tarrek gurago dute egunez lan egin eta gauzez lanik ez eduki. Arrazoi horregatik, tabernari eta antzeko lanbideetan lan egiteko

eskaera handia dago. Gazte batek baino gehiagok hor izango du uztailan lan egiteko aukera. Herri honetan, Arrasaten, taberna, jatetxe eta bestelakorik, behintzat, ez da falta.

ESKOLA PARTIKULARRAK

Bestalde, ikasle fin direnek edo bukatu berri den ikasturtean emaitza onak atera dituztenek badute lan egiteko beste aukera bat. Lehen, gazte askok egiten zuten. Egun, ordea, lan hori egitea ez da hain ohikoa.

Kalean iragarkitxo batzuk ipini edo GOIENKARIAN bertan iragarki batzuk ipiniz gero, eskolak eman gura dituen bera baino gazteagoi edo haren adinekoei eskola partikularrak emateko eskaini daiteke. Eskolak irakaslearen etxean edo eskolak hartu gura dituenaren etxean eman daitezke. Bide batez, ikasturtean emaitza onak izan ez dituzten gazte-txoek irailera azterketak hobeto prestatzeko aukera izango dute. Eta irakasle horiek abuztuko gastetarako behar duten diru sarre-ra txikia izango dute.



IKER BARANDIARAN

Uztailan hainbat gaztek eskola partikularrak hartuko dituzte.

SAN FERMIN TXIKI UDALEKUETAN

Astelehenean, uztailaren 7an, Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetako umeek San Fermin Txiki ospatuko dute. Herriko Plazan txupinazoa botako dute, 12:00etan. Entzierroan, udalekuetako umez gain, gainerako umeek ere hartu ahal izango dute parte.

GAZTETXEKO EKINTZAK

Gaztetxeako batzarrak, AGAKOK, hainbat ekimen antolatu ditu datozen asteotarako. Uztailaren 11tik 13ra bitartean, gazte batzarreko 20 bat lagun Maulera joango dira, eta Arrasateko musika talde bik, Spank² eta Never Surrender taldeek, kontzertua egingo dute Maulen. Horrez gain, uztailaren 19an Iruñeko Mermaid taldeak kontzertua egingo du gaztetxean, eta aurreantzean ere egongo da zer ikusi eta zer entzun.

EUSKO JAURLARITZAREN BEKA DEIALDIA

Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko 25 beka emango ditu Eusko Jaurlaritzak.

Beka horiek lortzeko beharrezkoa da EAeko biztanlea izatea, 32 urte baino gutxiago izatea eta beka horrekin lotutako unibertsitate titulua izatea. Uztailaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira eskaerak. Informazio zabalagoa: www.euskadi.net.

OPORRETAKO ARGAZKIEN LEHIAKETA

Ermuko kultura etxeak oporretako argazkien lehiaketa antolatu du. 1973a eta 1988a bitartean jaiotakoek parte har dezakete. Argazkiek koloreetan izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea, berriz, urriaren 9an bukatuko da.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

BEHEKOENPRESATIK

Iban Blázquez Herrarte

BZ SISTEMAS ENPRESAKUE

XABIER URZELAI

BZ Sistemas enpresan bulego baterako biher dan dana topauko dozue: altzarixek, aulkixek, armaixuek... Enpresie Ibanen aittek sortu euen, eta gaur egun Iban eta anaie dabitz bertan lanien. Gustora egitten dau Ibanek lan hori: "Azken baten, norberandako lan egittie baloretan da". Ez jako arrazoirik falta.

Txikittan ze gure zeuen izen?

1-Formulako piloto.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bai, duda barik, gaiñera.

Ze eskatuko zeuskio alkate barrixari?

Gauza asko; esate baterako, trafikuen arazue konponketie.

Drogak legalizauko zeuke?

Bai, duda barik.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

James Bonden azkena / Aldizkarixek irakurten dittut / Metallica.

Nora juengo zitzake gustora?

Ibizako kalatxo batera.

Uharte batera ze hiru gauza erueno zeuke?

Nobixie, surfa egitteko tabla bat eta janarixe.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Ohie egittie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Bai, apur bat bai. Leku danak daukie zerbait ona, ez dauket leku konkreturik.

Puntuau Mondragueko girue.


Mondraguen daguekeno asperu egin gare... Seikue emungo dutzegu.

Abuzturako ze asmo?

Autokarabana bat hartuko dot, baiñe auskalo nora juengo nazen: Portugalera, Alpietara... Batek daki!

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Klientiekin tratu ona eukittie.



"Denpora librien kirola egitten dot, eta horretaz aparte oso kapritxosue naz: auto teledirigiduek..."

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinēkin?

Iñokin be ez.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Lan gutxiago egitteko.

Denpora librien ze egitten dozu?

Danetik. Kirola egittie gustetan jat, eta horretaz aparte, kapritxo mordue dauket: auto teledirigiduek, hegazkintxo bat erosi dot...

Janari eta edari gustokue-nak?

Jateko, angulak, nahiz eta ez doten aspaldi jan; edateko, sagardaue.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

"Inportantie da langille bat bere jarlekuen gustora egotie, hobeto egingo dau lan"

Pakien bizi garela.

Bulegoko altzarixetan, diseiñue ala praktikue izetie da inportantie?

Bixek. Praktikue ez bada ez dau balixo, baiñe diseiñuak be bere garrantzixa dauko.

Zenbat eta kargu altuague, orduen eta jarleku hobie?

Normalien holaxe izeten da, baiñe badauz enpresa batzuk langillien arteko berdintasune reflejetako-edo ez dauela holako bereizketarik egitten.

Akaso, langillie komoduuegi egotie be ez da komeni, ala?

Bai, komeni da, bai. Langille bat bere jarlekuen gustora badau, lan be askoz hobeto egingo dau.

NIREBIDAIAHURA/ Arnaitz Eraso


Italiara / 2002ko otsailetik Aste Santura arte

Italian segitzen dugu, Arnaitzekin. Joan den astean Milango zentro sozial baten utzi genuen Arnaitz, parranda egiten. Milanera iritsi berri zen, eta lehenengo astea Milango gaueko giroaz gozatzeko aprobetxatu zuen. Gabonen aurretik Italiara egin zuen bidaiari Italia zertxobait ezagutu zuen, baina Milan ez zuen ia ezagutu, eta hori zuen helburu. Milanen ikusi beharrekoak ikusita, beste bidaiari bati ekin zioten Arnaitzek eta Italiako lagunek. Furgoneta hartu eta Austriarako bidea hartu zuten. Vienan ikasle-egoitza baten zegoen lagun batengana joan ziren, eta han lau egun egin zituzten: "Ikasle-egoitzan koltxoi batzuk hartu, eta ez genuen arazorik izan han geratzeko. Egun haiek Viena ezagutzeko aprobetxatu genituen".

Austrian egonda, Hungaria ere ondo-ondoan zuten, eta Budapestera joan ziren. Hiru orduko bidaiari egin eta gero, Budapesten garabiak furgoneta eraman zion Arnaitzi, eta, hortaz, ez du lurralde haren oroitzen onik. Hungariatik Vienara bueltatu ziren, eta Vienan beste bi egun egin eta gero, Pragarako bidea hartu zuten. Praga asko gustatu zitzaion Arnaitzi, eta, besteak beste, artisautzako merkatuek gozatu ahal izan zuten. Pragatik Milanera itzuli ziren, eta handik Suitzarako bidea hartu zuten. Suitzatan ur termaletan egon ziren: "Ederto egoten zen han, baina arazotxoren bat edo beste izan nuen. Kartel baten jartzen zuen ur termaletan ibiltzeko ez zela planorik behar, gauzak nork bere kontu deskubritzea zela onena, eta ia emakumeen aldagelatar sartu nintzen. Hanka-sartze harez gain, gainarako guztia gogoan izateko modukoa izan zen. Kanpoan elurra zen, eta gu 36 gradura geunden, uretan. Gainera, ez zen oso garestia: 20 euro ordaindu genituen".

Suitzatan hainbat egun egin eta gero, Milanera itzultzeko ordua iritsi zen, eta Milanen astebete egin eta gero, Arnaitzek Arrasaterako bidea hartu zuen. Ondo aprobetxatutako hilabeteak izan dira.

XABIER URZELAI



Vienako plaza baten egindako argazkia.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiari kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



Argazkian, Abaroa elkarteko hainbat erretiratu orain dela hilabete batzuk egindako irteera baten.

Herriko erretiratuek oporretan joateko aukera mordoa dituzte

IKER BARANDIARAN

U da gainean daukagu eta asko eta asko oporrak heltzeko irrikan gaude. Gure gizarteko zati handi batek, erretiratuek, ez dauka zertan oporretan joateko uztaila edo abuztua heltzeari itxaron. Salbuespenak salbuespen, urte osoan barrena dute kanpora, oporretan, joateko aukera. Eta hala egiten dute askok eta askok, jakina. Esate baterako, neguan, hotza dagoenean, berorantz jotzen dute batek baino gehiagok, Benidorm, Torreveija eta halako herrietarantz. Inersok ematen dizkien aukera guztiez gain, erretiratuen elkarteek ere eskaintzak izaten dituzte, eta ez dira edozelakoak izaten. Arrasateko erretiratuen elkarte gehienek, urtean, egun batzuetako txango bat edo bi antolatzen dituzte. Horiez gain, egun berean joan-etorria egiteko irteerak ere prestatzen dituzte.

OPORRETAN JOATEKO AUKERA MORDOA

Besteak beste, egunotan herriko erretiratuen bi elkartek hainbat txangotara joateko izenematea zabalik dute: Abaroa elkarteak Lloret de Marrera irteera prestatu du eta Santa Marinako Toki Argi elkarteak, berriz, Costa Brava txangoa. Toki Argiok Katalunia aldera irailaren 27tik urriaren 2a bitartean joango dira, eta hainbat hiri eta herri bisitatuko dituzte: Figueres, Ampuria Brava, Girona, Bartzelona, Tossa de Mar...

Joan gura duenak 220 euro ordaindu beharko ditu, eta komeni da izena lehenbailehen ematea.

Abaroa elkartekoak, berriz, Lloret de Marren irailaren 20tik 27ra egongo dira. Lloretetik hainbat irteera egingo dituzte, inguruak bisitatzeko. Lloret de Marrera joan gura dutenek 175 euro ordaindu beharko dituzte, eta izena lehenbailehen ematea komeni da. Kasu bi horietan, elkarte bakoitzeko bazkideek lehenbaita izango dute izena emateko. Dena dela, lekua egonez gero, gainerako erretiratuek ere txango horietara joateko aukera izango dute.

Erretiratuek txango horietan ordaintzen dituzten salneurri merkeak kontuan hartuta, hobe dute jende gehienak egiten

Benidormeko errege-erreginak

Ezagun da urtean barrena, neguan eta udazkenean batez ere, erretiratu asko eta asko eguzkiaren eta berotasunaren bila oporretan joaten direla.

Erretiratuak behendiboraldian oporretan joaten diren leku ohikoak Benidorm, Salou, Torreveija eta Malaga dira. Halako sasoieta hotelak erretiratuak beteta egoten dira.

duen moduan abuztuan joan beharrean, iraila bukaera arte itxaron eta sasoi horretan joatea oporretan. Beste batzuek, aukera hori edukiz gero, antzera egingo lukete. Opor-lekuan jende gutxiago egoten da; hortaz, lasaiago eta erosoago ibil daiteke, eta, gainera, salneurriak askoz merkeagoak dira.


EGUN BAKARREKO TXANGOAK

Bitartean, eta abuztua heldu artean, herriko erretiratuek, itxaron behar ez izateko, beste aukera batzuk dituzte. Uztailaren 10ean, Uribarriko elkarteak Santanderrera txangoa egingo dute. Egundak ederra egingo dute, eta Kantabriako inguruak ezagutzeko aukera izango dute. Ziur egon bazkari ederra egingo dutela eta egun politaz gozatuko dutela.

Horrez gain, Abaroa elkarteko erretiratuak uztailaren 14an Gernika-Lumora joango dira. Gernika-Lumon hamarretakoa egingo dute, eta Gernikako batzar etxea eta azoka bisitatuko dituzte. Horren ondoren, Busturian bazkalduko dute eta bueltan Bermeon geldituko dira.

BAINUETXE PROGRAMA

Eta, azkenik, ezin ahaztu urtero Gizarte Zerbitzuen Institutuak (Inersio) abian jartzen duen bainuetxeetara joateko gizarte programa. Programa horren bitartez, Espainiako Estatuko zenbait bainuetxetan aste bi pasatxo igarotzeko aukera izango dute, eta salneurri oso merkeekin, gainera.



Erretiratuek Toledoko Itunean parte hartu gura dute

I.B.

Arrasateko erretiratu eta pentsiodunek, gainerako erretiratuekin batera, ordezkaritza izan gura dute eurei dagozkien gaiak aztertuko dituen Toledoko II. Itunean.

Erretiratuen esanetan, Seguritate Sozialeko foro horretan erabakitzen dira erretiratuei eta pentsiodunei eragiten dieten gaiak, eta derrigorrezko ikusten dute euren defentsan lan egingo duen ordezkaritza egotea. Hala adierazi zion Arrasate Irratiari Jose Rivierek, Abaroa elkarteko ordezkaririk.


Erretiratuen iritziz, berebiziko garrantzia du pentsioen gai-

nean gobernuak erabiltzen duen politika.

ERRETIRATUEN SINADURAK BATZEN

Erretiratuek ez dakite noiz batuko diren Toledoko Itunaren ordezkaririk, oraindik ez dago eta egunik zehaztuta. Baina ordurako, berriro batzen direnerako, erretiratu eta pentsiodunek ordezkaritza izan gura dute, euren burua defendatzeko.

Horretarako, Arrasateko erretiratuen elkarteetan sinadurak batzen dabilta, astelehenera arte, uztailaren 7ra arte. Arrasaten eta beste herri batzuetan jasotako sinadurak Gipuzkoako elkartera eramango dituzte. Eta handik Madrilera eramango dituzte.



Candido Moralejak utzi egin gaitu

Ekainaren 25ean, Candido Moraleja arrasatearrak utzi egin gaituen. Candido Moraleja 1900eko urriaren 3an jaio zen, eta aurtengo urrira arte bizi izan balitz 103 urte beteko zituen.

Candido Moraleja Cuencako Villalba del Rey herrian jaio zen, baina soldadutza egitera Euskal Herrira etorri zen. Emaztea izango zena ezagutu, eta Euskal Herrian geratu zen bizi izaten. Arrasateko gizon zaharrenetarikoa zen, eta erretiratuen omenaldietako txapel mordoa jaso zituen. Umoretsua zen, eta oso apetitu ona zuen. Goian bego, Candido.



ARRASATE
Andoni Abaunza
Uztailaren 4an, 6 urte.
Zorionak! Aitaren eta ama-
ren partetik.



ARRASATE
Encarni García
Ekainaren 30ean, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Senarra
eta Eneko.



ARRASATE
Patricia Barquero
Uztailaren 1ean, 10 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
aizukoak.



ARRASATE
Garazi Etxabe
Uztailaren 4an, 3 urte.
Zorionak! Aitorren eta lke-
rren partetik.




ARRASATE
Antonio Gonzalo
Uztailaren 5ean, 27 urte.
Zorionak! Tereren eta etxe-
koen partetik.



ARRASATE
Bixente eta Odei Sierra
Uztailaren 5ean, 37 urte.
13an, 3 urte. Zorionak! Etxe-
ko hirugarrena.



ARRASATE
Julen Urrutia
Uztailaren 12an, 5 urte.
Zorionak! Familiako enpar-
tetik.



ARRASATE
Nerea Pildain
Uztailaren 1ean, 28 urte.
Zorionak! Txomin eta
Aitzol.



ARRASATE
Haizea Arriaran
Uztailaren 4an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Irati Abarrategi
Uztailaren 1ean, 1 urte.
Zorionak, zerua argitu
duzu-eta! Aita eta lagunak.



ARRASATE
Elda
Uztailaren 1ean, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Iriztuko
lagunen partetik.



ARRASATE
Kandi
Uztailaren 1ean, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Iriztuko
lagunen partetik.



ARRASATE
Eider Agiriano
Uztailaren 1ean, 3 urte.
Zorionak! Gurasoak, Bixen
eta aitona-amonak.



ARRASATE
Jon Lezeta
Ekainaren 16an, 25 urte.
Urte askotarako! TMT.



ARRASATE
Oihana Garmendia
Ekainaren 21ean, 24 urte.
Zorionak! TMT.




ARRASATE
Egoitz Zubizarreta
Ekainaren 30ean, 25 urte.
Urte askotarako! TMT.



ARRASATE
Lander Galdos
Ekainaren 30ean, 25 urte.
Zorionak, Galdos! TMT.



ARRASATE
Iosu Arkauz
Ekainaren 28an, 46 urte.
Zorionak! Segi, Askatasu-
na, Etxerat eta etxeak.



ARRASATE
Luis Mari Azkargorta
Ekainaren 30ean, 51 urte.
Zorionak! Segi, Askatasu-
na, Etxerat eta etxeak.



ARRASATE
Aratz Gomez
Uztailaren 6an, 24 urte.
Zorionak! Segi, Askatasu-
na, Etxerat eta etxeak.



ARRASATE
Lander Roteta
Uztailaren 8an, 10 urte.
Zorionak! Etxeko enpar-
tetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Persona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetzeari eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Non dago irudiotako zubia?
Arrastoa: Orain dela gutxi inauguratu zuten.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Kas naranja
Bi litroko bi botila

1,75€ 291 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

M^a JESUS MADINABEITIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, M^a Jesus!
Galderen erantzun zuzena:
San Prudentziotik edo Elorregitik.

ARRASATEKO HISTORIA

Nondik nora datorkio Biteri etorbideari izena?

JON ANDER RAMOS

Portaloitik Nafarroa etorbidera zuzen doan kaleak dauka On Pedro Biteri eta Arana jaunaren izena.

On Pedro 1833ko ekainaren 18an jaio zen, Iturriotz kaleko 25. zenbakian. Aita eta anaia hil zitzaizkionean ogasun handia eskuratu zuen. Eta, filantropoa zenez, herentzia guztia hezkuntzari bultzada emateko bideratu zuen; eskolak eraiki zituen eta ondasunak eman zituen eskolendako.

Celina Wood & Bland andrearekin ezkondu zen. Biteriren aurreneko fundazioa Arrasatekoa izan zen; Eskola Profesionalaren aurreneko egoitza.

Biterik 1902an sortu zuen fundazio hura eta 200.000 pezeta, eraikinak eta lurzorua eman zituen fundaziorako.

Hain zuzen, hark esaten zuen Arrasate herriari on egiteko bide egokiena herriko hezkuntza bultzatzea zela; besteak beste, hezkuntza zena eta oparotasunaren oinarria eta moralitatearen bultzatzaile nagusia.

*Herentzia guztia
hezkuntzari
bultzada emateko
bideratu zuen On
Pedro Biterik*

*Esaten zuen
Arrasate herriari
on egiteko bide
egokiena hezkuntza
bultzatzea zela*

Arrasateko fundazioaren ostean halako gehiago sortu zituen beste herri askotan, hala nola: Hondarrribian, Errenterian, Pasai Antxon, Pasai Donibanen, Irunen, Donostian, Hernanin, Urnietan eta Aretxabaletan.

Egindako kalkuluen arabera, 774.600 pezeta eman zituen hori guztiori egin ahal izateko (kopuru izugarria, mende



UBANE MADERA

Portaloitik Nafarroa etorbideraino zuzen doan kalea da Biteri etorbidea.

hasiera zela kontuan hartuta). Arrasateko fundazioa sortu eta sei urtera hil zen Biteri, 1908ko maiatzaren 21ean, hain zuzen ere.

Gipuzkoako herri askotan

daude haren omenez izendatutako kaleak: Errenterian, Donostian eta Arrasaten, besteak beste. Horrez gainera, Arrasaten eskultura egin zioten, 1911n, Piqué, Molina eta

Riu eskulturagile famatuek. Eskultura hori Biteri izeneko lorategietan egon zen urte askoan; gero Udal Biltegieta egon zen, harik eta Grupo San Juanen ipini zuten arte.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko uztailaren 4a / 71. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bigarren urtez, arrakasta izan dute Udako Ikastaroek


Iaz bezala, aurten ere arrakastatsuak izan dira Aramaion landutako Udako Ikastaroak. Martitzenean hasi eta gaur, barikua, bukatu dituzte. Eta tarte horretan leku askotatik etorritako hamaika irakasle ezagunek I-X. mendera arteko historia ezezagun samarraren ikuspegia aurkeztu diete ikastaroan parte hartu duten ikasleei.

Ikasleei dagokienez, leku askotatik etorri dira Aramaiora, Euskal Herriatik baita Euskal Herri kanpotik ere: Madrildik, Gasteiztik, Arrasatetik eta, jakina, Aramaiotik. Batez beste 25 bat lagunek hartu dute parte egunero. Hala, 80-90 ikasle inguru ibili dira Aramaion.


Hitzaldien artean, batzuk euskaraz egin dituzte. Kasu horietan aldi bereko itzulpen zerbitzua eskaini dute.

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera antolatutako Udako Ikastaroak izanda, parte hartu duten ikasleendako aukera askeko kreditu bi eskaini dituzte.

Foru Aldundiaren eta EHUren artean antolatu dituzte eskolok, Udalaren laguntzarekin.



Argazkian, Henrike Knörr euskaltzaina eta Mertxe Mondragon alkatea.



KZGunearen uztailleko ordutegia

KZGuneak uztailan izango duen ordutegia erabaki dute. Hala, hilaren letik 15era goizean goiz zabalduko dute: 08:00etatik 12:00etara egongo da zabalik. Uztailaren 16tik 31ra, berriz, arratsalde zabalduko dute, 13:00etatik 17:00etara. Gero, abuztuan, kultura etxeko gainerako zerbitzuak moduan, KZGunea ere itxita egongo da. Iraileko ordutegia aurrerago erabakiko dute.

Horrez gainera, Udalak jakinarazi digu oraindik badagoela izena emateko aukera. Interesa duenak udaletxeko bulego-
ra jo beharko du. Zerbitzua doan da.

Udal batzordeen arduradunak izendatu dituzte

Eguaztenean egin zuten udal batzordeen eta arduren banaketa. Hau da, udalbatzarra osatuko duten zinegotziei egin beharrekoa egokitu zieten. Hala, behin hori eginda, hemendik aurrera Aramaio Udalaren funtzionamendua erabakiko dute.


EUSKARA ETA KULTURA UZTARTUTA

Mertxe Mondragon alkateak aurreratutakoaren arabera, berak ez du batzordeen ardurarik hartuko, alkate lanak beteko ditu. Hori bai, jakinarazi digu zenbait batzorderen arduradunak zeintzuk izango diren erabakita dagoela. Honako hauek, hain zuzen ere: Hirigintza batzordea Roberto Aginagaldere eskuetan geratuko da; Zerbitzuen batzordea Andres Osinagak landuko du (orain arte moduan); eta Men-

dien Saila Valentin Arriaranen esku geratuko da.

Bestalde, alkateak jakinarazi digu euskara eta kultura batzordeei dagokienez orain arte moduan segituko dutela, hau da, batzorde bitan banatuta; baina, era berean, esan digu metodologia aldetik zerikusi handia izango duela batak bestearekin.

Aipatutakoez gain, Ogasun eta Hezkuntza batzordeetako buruak izendatzea falta da; baita Zuiako Koadrilarako ordezkaria zein izango den erabakitzea ere. Era berean, ordutegiak eta bestelakoak ere erabakitzeak ziren eguazteneko batzarrean. Baina albiste hau idazteko orduan batzorra egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zertan geratu den batzordeen banaketa, ezta ere alkateak aurreikusitakoa bete den edo ez.



Hemendik aurrera Udalaren funtzionamendua zehaztuko dute.

LABUR

Hirugarren Adinekoen Topaketak

Barikuan, hilaren 11n, Zuiako Koadrilak Antolatutako Hirugarren Adinekoen Topaketak izango dira Zigoitian. 11:00etan hasiko dira ekitaldiak: Apodakako parrokiari ongietorria egingo diete parte hartuko dutenei; gero, 12:30ean, Zigoitia Ezagutzen bideoa ikusiko dute; 14:30ean, bazkaria izango dute; Zigoitiko gizarte-kultura etxean. Arratsaldean, 16:30ean, La Ribera Canta musika taldearen opariak emango dizkiete; 18:00etan, dantzaldia izango dute Duo Delicias taldearekin; 20:00etan, azkenik, nor bere etxera bueltatuko da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	


GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izaritxoaren duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

BOTEPRONTOAN/ Olatz Altube · Nikaraguan bizi da

“Inoren kontakizunetatik ezagutzea baino gehiago, halako esperientziak norberak bizi izatea merezi du”

Olatz Altube barajuendarra Nikaraguan dago urtarri-laren 15a ezker. Eta abendu-ko aurreneko astera arte han egoteko asmoa dauka. Interneti esker Olatz bisitatu dugu, eta hara zer kontatu digun:



Zelan erabaki zenuen hara joatea? Lehenengo aldia da?

Pedagogia ikasketetan irakasle bat nuen, Ertamerika aldean ibili zena; beste herrialde batzuetako hezkuntza sistemak eta kultura bera ezagutzea bizipen polita delako kontuekin irrika sartu zidan, eta ikasketak bukatu nituenean, nahi hori aurrera eramatea erabaki nuen. Hala, urtebete hau Nikaragua ezagutzeko aprobetxatuko dut. Nikaraguan nagoen lehenengo aldia da; berez, Ertamerikako edozein herrialdetara joateko gertu nengoan, baina bi arrasatear ere hona etortzekotan zirela-eta, haiekin etorri nintzen; geure kabuz etorri gara.

Zein lekutan zaude? Norekin?

Nikaraguako Masaya hiriburu departamentalean nago, Nere Gangoiti eta Alaitz Morras arrasatearrekin; azken hura Arrasaten dago maiatzaren 20a ezker. Masayan Movimiento Comunal Nicaraguense erakunde-
dean gaude; bulego hutsak utzi dizkigu bizilekua antolatzeko; egunez bulegoak daude, baina oso ondo moldatu gara eurekin. Erakundea 1978an sortu zen. Hasi-
era baten FSLN (Frente

Sandinista de Liberacion Nacional) partiduarekin lotuta-
ko mugimendua izan zen, baina azkenaldian, herriaren eta herritarren beharrei aurre egiten laguntzeko mugimendua da. Herritar pobreenak ditu helburu. Populazioaren osasuna, umeen eta nerabeen eskubideak, hezkuntza, aisialdia, elikadura, ingurumena zaintzea, etxebizitzak eraikitzea, errepedeak... Gai horiekin lotutako proiektuak egiten dituzte.

Zuek lanean zabilzate?

Hasi-
era baten lanean gabiltza, goizez, haur eskoletan; eta arratsaldean Lehen Hezkuntza-
ko neska-mutikoei laguntza eskolak ematen. Horrez gainera, arratsaldean, libre ditugun orduetan, herriko parke nagusian zapatak garbitzen, autoak zaintzen edo eskean dabilzan umeekin jolasean ibiltzen gara. Eta gainera, turismo dezente egiteko modua ere izan dugu. Nikaraguako atlantikoko kostaldea eta kostalde barea ezagutu ditugu, baita Granada,

Leon eta beste hainbat hiri kolonial ere; Rio San Juan, Managua, Costa Ricako zatitxo bat eta parke naturalen bat zein beste ezagutu ditugu. Ikusi dugunaren arabera, denetarik dago: dirudunak eta pobreak; pobreak gehienbat. Ume eta gazte ugari ikusten da kalean, baita edanari emandako gizon ugari ere. Bestalde, ume asko daude eskolatu barik, kalean saltzen, gurasoei laguntzen...

Han egonda, Sanmartinak ospatzeko asmorik bai?

Oraingo ez daukat ezer pentsatu, baina zerbait asmatuko dugu. Aramaioko webgunean begiratu eta jaietako egitaraua ikusita, han egoteko gogo piztu zitzaidan, baina hemen moldatu behar... Hortaz, han zaudetenok, ondo pasatu San Martin jaiak!

Bukatzeke, antzerako zerbait egitea pentsatzen dabilen norbaiti zer esango zenioke?

Birritan pentsatu barik etor dadilla; oso bizipen polita eta aberasgarria dela, eta leku zein pertsona zoragarriak aurkituko dituela lurralde hauetan. Kontraste handiko herrialdea aurkituko dutela, txiroa neurri handi baten, baina aberatsa bizipenetan. Eta inoren kontakizunetatik ezagutzea baino gehiago, norberak bizi izatea merezi duela. Eta lana gura adina dagoela: antolaketa handirik ez, baina lana nonahi. Eta, bide batez, estresa zer den ahaztu egiten dela.

“Bulego hutsak utzi dizkigu bizilekua antolatzeko; (...) oso ondo moldatu gara eurekin”

“Aramaioko webgunean begiratu eta jaietakoa ikusita, han egoteko gogo egin zitzaidan”

San Martiñak bizi bizian!

Berriak Aramaiotik,
Astelehenean 14:30ean eta 20:00ean
Aurkezleak: **Julen Iriondo eta Mainer Osa**

Jaiak 2003 Aramaion,
Astelehenean, 20:45ean



Ikusiko duzu!



ERRETRATUZAHARRA

Amayur
batailoaren
gainekoa

Orain dela gutxi azalean atera genuen argazki bera ekarri dugu erretratu zaharraren atalera, haren gainean informazioa emateko asmoarekin.

Espainiako gerran parte hartu zuten Amayur batailoiko zenbait kide agertzen dira. Goiko ilaran, eskumatik ezkerrera: Felix Iraola, Jose Miguel Egidazu eta Cruz Villar; eta beheko ilaran: Angel Arregi, Vicente Uribetxerria eta Juan Azkoaga.

Amayur batailoia Gernikan sortu zen, Euskal Milizien buru zen Felipe Lizasoren esanetara. EAJko eta Euzko Gaztediko kideak Elorriotik joan ziren horretarako. Batailoiko lehenengo konpainiako kide guztiak Arrasatekoak ziren (150 lagun). Jose Gorroñogoitia kapitain izendatu zuten eta Joakin Garmendia, Jose M. Gallastegi *Intxausti*, Juan Azkarate eta Juan Barrutiabengoa, berriz, teniente.

Beste 50 arrasatear inguru beste batailo batzuetan sartu ziren: San Andres, Loyola, Lenago il eta Itxarkundia. Era berean, EAeko (ANV) kideek



batailo propioak antolatu zituzten, Gabriel Goitiaren zuzendaritzapean.

Hona hemen batailoiko Cruz Villarrekin kontatzen duen pasarte bat: "Bala bularretik sartu eta gerritik urten eusten. Jokin Garmendiak sukalde baten sartu eta lurrean etzan ninduen. Beste 12 lagun ukuiluan

gelditu zien, euren artien, Felix Sagasta arrasatearra. Han ginduela bi moro sartu ziren eta esan euien: "Tú ser rojo cabeza cortar". Baina, berehala tenientea etorri zan ia nunguek eta zein familixatakuak gitzen galdezka. (...) 15:00etan hiru mororen artien kamioneta baten ospitalera eruen nindduten.

Baina, neu eruen eta ordu laurdenera beste hamabi lagunak fusilatu zittuen, Felix Sagasta be bai".

Argazkia eta informazioa:

'Arrasate 1936 Belaunaldi etena' liburua.

Urtea: 1936

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Etxebizitza
izateko
eskubidea

Etxebizitzen gaineko arazoa aspalditik dator. Esaterako, 40ko hamarkadan 450 bikote ezkondu ziren Arrasaten, eta 150 bikotek bakarrik lortu zuten etxebizitza propioa izatea. 1956. eta 1960. urte artean 407 etxebizitza egin zituzten, eta beste 300 etxebizitza eraikitze lanetan zeuden. Hurrengo urteetan ere etxe piloa egin zituzten Arrasaten, herria hazten zebilen-eta.



≈ 1955

1950ean Arrasatek 10.134 biztanle zituen eta hamar urte geroago, berriz, 14.107. Hurrengo hamarkadetan bikoiztu egin zen zifra hori.



2003

Azken urteotan, Arrasateko seme askok kanpora jo behar izan dute bizi izatera, herrian etxebizitzak oso garesti daude-eta.

"PAL"

Burindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE


S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Erdiko kale, 14 • Tel.: 943 79 46 94 • ARRASATE

DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK

Ez galdu zure armairua udako jantziz osatzeko aukera!

Publizitate arloan lan egiten duen Gipuzkoako enpresa berri batek honako lanpostu hauek bete behar ditu:

1.- Komertzial sarearen koordinatzaile/arduraduna. Erref.: S.Ard.

Bilatzen dugu:

Giza harremanetarako gaitasuna duen pertsona dinamikoa.
Lan taldeen gidaritzan edo publizitate salmentan eskarmentua duena.
Helburuekin lan egiten ohitua dagoen pertsona.

Eskaintzen dugu:

Euskalgintzako proiektu berri batean parte hartzeko aukera.
Euskal Herri osoko komertzial sare baten gidaritzan.
Lan kontratua eta gizarte segurantzako kotizazioa.
Oso soldata interesgarria: finkoa+komisioak+sariak

2.- Publizitatea saltzeko komertzialak Gipuzkoan. Erref.: Kom.

Bilatzen dugu:

Giza harremanetarako gaitasuna duen langilea.
Pertsona dinamikoa.
Mundu komertzialerako bokazioa duen pertsona.

Eskaintzen dugu:

Euskalgintzako proiektu berri batean parte hartzeko aukera.
Lan kontratua eta gizarte segurantzako kotizazioa.
Oso soldata interesgarria: finkoa+komisioak+sariak.
Enpresan promozionatzeko benetako aukerak.

Bietan ezinbestekoa:

Euskaraz ondo hitz egitea eta idaztea.
Gidabaimena eta autoa izatea.

Interesatuok bidali lehenbailehen zuen curriculum, argazkiarekin, honako helbide honetara:

IRAGARRI S.L.

Gudarien etorbidea, 29 • 20140 ANDOAIN- GIPUZKOA

Gutun-azalean eta curriculumean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

